

IDATZ & MINTZ

Literatur atalen sorta

51


Aurkibidea: Adolfo Arejita: LINO AKESOLO GOGOAN JAIOTZA MENDEURRENEAN. **3**. Juan Manuel Etxebarria Ayesta: AITA LINO AKESOLOREN MENDEURRENA. **13**. Lourdes Unzueta: GOSE NEGARRA. **15**. Amaia Iturbide: LORO MOKO-URDINA. **19**. Luigi Anselmi: BORTZ OLERKI LLABUR. **25**. Jabier Kalzakorta: *BRODATZEN ARI NINTZEN* BALADAGAIKO ALTZAIKO ALDAERA BERRI BAT. **27**. Iratxe Ormatza Imatz: ENKONTRUAK. **42**. Sebastian Gartzia Trujillo: EUSKARA, BASERRI-HIZKUNTZA? **45**. LIBURUAK. **55**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2011ko uztailean, Baster S. L. L. etxean, eta lkur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Iru-
diak Garikoitz Arregik, Joana Elorriagak eta Isusko Vivasek egindakoak dira.



LABAYRU IKASTEGIA
Aretxabaleta, 1-1ngoia
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Idazkaritza Politikako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk²

Lino Akesolo gogoan jaiotza mendeurrenean





Lino Akesolo (1911-1991) jaio zala ehun urte dira aurten, eta Labayru Ikastegiak argitara ohi dauen *Idatz & Mintz* aldizkari honek be gorazarretxo egin gura izan deutso bizkaitar idazle eta iker-tzaile goren honi. Jaiotza-mendeurrenaren atxakia barik be, arrazoirik ez zan falta horretako; batzuk guztientzakoak, beste batzuk etxekotasunak sorrarazoak. Labayru Ikastegiaren kasuan, beronen jarduerakaz, berau sortu zanik eta gehiago (1977) eta ia heriotza aurretora arte, eraspen eta lokarri sendoa erakutsi eban aldiro-aldiro, baita laguntasuna emon be behar orduetan. Horren guztiorren eskerronez zor deusagu gorazarrezko gomuta hau.

Ikastegi hau sortu zanean, 1977 urtean, –orduko basamortu-eremuan gure kulturari bizkorraldi bat emoteko asmoaz, neke-izerdi askoren ondoren ere-giriko erakundea–, Linori eskatu eutsan, erakunde barriaren zuzendari izango zan Ander Manterolak, araudia euskeraz ezarri egian, berak ekian euskera eder horretan. Esan eta egin: “*Estanislao J. de Labayru*” *Eleiz-barrutiko Ikastegia sortzeko erabagi-agiria eta arauak* izenburuaz agiriratu zan euskerazko bertsinua. Zuzenbide arloko edukiok euskeraz ipinieran erakutsi eban maisutasuna, arte-rago be beste itzulpen-egokitzapen batzuetan ondo frogatua eban Akesolok: zentzuna, zehaztasuna eta

hizkera aiutua. Aurton atera da faksimil eran –mendeurrenaren gomutagarritzat hau be–, 1964an argitarata emon zan *Salmoak* liburua; lehenxeago Iratzederrek eta Lertxundik lapurteraz eta doinuaz lagundurik atera izan eben salmoen bertsinoa bizkaieraz atondurik. Hitz neurtuz eta doinuen erritmoari egokiturik ondu behar izan eban bere bertsino hori, bertsoen neurri-puntuei zuhur jaramonik, baina aldi berean bere sartalde-hizkeraren koherentziari huts egin barik. Hor be ondo ezagun dau, ze euskera apain eta jantziaren jabe dan. Bitzuei ateraten deutse etekina: herri-hizkeraren emoei eta idatzi klasikoenei; erara zer jatorikon, hara joko dau. Bide beretsutik ondua da hitz neurtuzko *Karmeldar Teresiarren Ordenako Orduen Liturgia* be (1998), *Karmel* aldizkariak *Lekukoak* bilduman ateratako bertsinoa; Akesoloren izenik ez dakit beronetan

agiri dan, baina badakigu, bizi zala, goitik behera berberak berridatziriko testua dala. Eta ez bizkaieraz, *Salmoak* lez, gipuzkera osatu antzekoan baino; eta, grafia kontuak aparte, larri-larri gaurko euskera batuaren ereduan idatzia.

Izan be, Aita Linok bizkaiera-gipuzkerak, eredu biak erabili izan ditu –gaiaren arabera edo ingurugiroak halan eskaturik, bata edo bestea–, eta maisuro menderatu, barriz, biak, beti be hizkera bakotzak bereenak dituan baliabideak erabilirik, lexiko eta lokuzino kontuan berariaz. Eta itzultze-lanaz dihardugun ezkeron, sorkuntzan legetxe, idazten maisu handi dana, besteak beste, puntu baten dau ezagun: haren bertsinoai nekez dariela itzulpen sundarik; estilo berezko eta naturalarena bai, ostera. Hitzlauruko itzulpen eredu on bat emotekotan, Santa Teresaren “Camino de Perfección”, euskerazkoan *Onbidea*,



izentau leiteke, baina ezin ukatu, gorago esan denez, bertsozko itzulpenetan dirala meritugarriago beronen bertsinoak: salmoetako ahapaldiak neurrietara eta doinuetara ekarri beharrak neke handiagoa eskatzen dau, dudatzaka, eta are gehiago darabilen euskera ereduaren ekanduetara makurtu gura izan ezke-ro. Oharrez eta geldiro irakurtekoak dira Linoren euskerazko ahapaldiak: hizkera gozo berezkoa, herri hizkera klasikoen erabilerez gantzutua.

Linoren belaunaldi berekoa genduan Eusebio Erkiaga lekeitiarra be, Ikastegiaren Ohorezko Laguntzailea, eta Aita Linoren adiskide handia. Honek, handik urte batzuetara gure Ikastegiak argitaratzeko *Jaioko dira...* elabarria (1984) ondu ebanean, Linori opetsi eutsan Sarrerakoa egitea. Honek, elabarria oso-osorik eta aditasunez irakurri eta ostein oratu eutsan arloari, eta hamar orrialdeko saio mardula erantsi liburuari aurrean: “Bizkai-ko idazle andi baten opari barria” izenburuz (7-14 or.). Literatura kritika arlokozat jo geinken saio horretan, beste gitxitan lez erakutsi eban gure maisu dimoztarrak bere kritiko begi zorrotza. Adinkideakaz edo aldi modernokoakaz ezeze, eta batez be, idazle klasikoakaz erakutsi eutsan batez be kritiko sen hori: Etxepare, Gazteluzar, Etxeberri Ziburuko, Barrutia antzerkigilea, eta, labur esanda, euskal literaturak ezagutu dituan idazle itzaltsu (eta ez horren itzaltsu) askogaz. Mitxelenak eta beste jakitun batzuk be begirune apartekoa izan deutse beti Akesolori, eta haren eretxia jakin gura agertu dira beti euskal testu zahar-klasikoen arloan. Nor egoan ba, aldi baten, Aita Lino baino adituagorik eta irakurriagorik euskal literatura zaharraren barrutian?

Derioko Udako Euskal Ikastaroen akabuan lehen egiten ziran omenaldietan be protagonista izan genduan Aita Lino behin baino sarriago. Omenaldiotariko bat berari egin eutsan Derioko Ikastaroak –1987ko uztailaren 10ean, hatan be–. Beste behin bera subertau zan omenduaren aitabitxi:

1991.ean Jaime Kerexeta omendu zaneke haretan, *Euskerazko Bibliak* gaiaz jardun eban berak. Baina beste erakunde askok bultzatu dituan gorazarre-omenaldietan be ohorezko gonbidatu gertatu da sarri Akesolo. Halan, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuonari 80ko urteetan Donostian egin eutsan omenaldian be berau izan genduan hizlarietariko bat. Haren ibilbide eta emaitzak ondo ezagutzen zituan seinale. Eta norenak ez, ostera?

Larogeigarreneko urteetan, *Labayru Hiztegia* izango zanaren lehen urratsak emoten hasi ginanean be, lehenengo prestakuntza batzar batzuetan be lagun izan genduan Aita Lino Derioko egoitzan, bere eretxi astunagaz argibide zentzundunak eralgiten. Artean ondo erakutsia eban lexikografian be bere jakituria: 1976rako argitaraturik egoan bere ardurapean prestatzen ziharduen *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* dalakoa, Azkueren Hiztegiaren osagarritzat pentsatua berez, baina Manuel de la Sota eta Piarres Lafitte-en ekarriakaz batetik, eta ez gitxi Linoren berarenakaz, ugaritua eta aberastua. Bederatzi liburukitan baturiko corpusa, Azkueren osagarri izatetik urrunago doa. Tamalez luze jo eban argitarakuntzak, eta 1989an bederatzigarren akabuko liburukia atera zan arte, ez zan amaitu luzaroko kuruzbide hori. Artean bidean zan, Mitxelenaren zuzendaritzapean abiatu zan *DGV-OEH* corpus-hiztegi nagusiagoa, baliabide informatikoz egina eta euskal literatura idatziaren corpusa modu sistematikoz baturik eta sailkaturik egin –1987 eta 1989an argitara ziran lehen liburuki biak–, eta horren gerizea handiegia zan, artisau eran eginiko *DRAE* dalakoaren aurrean. Aita Linok berak damaiguz zeheroen hiztegi horren atzera-aurrerak idazlantxo bitan (*Idazlan Guztiak*, III, 335-344). Azkuerenaren aldean, askozaz ugariagoa eta osotuagoa da *DRAE*, batez be tradizino idatzitik askoz gehiago edan dauelako; eta ez liburutatik bakarrik, baita, eta oparo, aldizkari, urtekari, libu-

ruska, errefrautegi eta argitalpen xumeetarik be; hau da, *DGV-OEH* baliatu ez zan horretatik. Hiztegi nagusi horri akatsik egoztekotan, metodologia aldekoa bat. Adibide bat ipinteko: Azkuegandik *abespelu* eta *abespeluan* jasoten dau bere osoan, eta hitz barri lez sartzan dau, ostera, *abasberuan*, funtsean hitz bera dana. “Autoridade hiztegi” izenburua, neurri baten, ondo ezarria da, tradizino idatzitik batzen egin dalako ahaleginik gehien.

Euskal literatura zahar-klasikoetako liburu eta eskuizkribuen eta euretako testuen ezaguera zehatz eta sakona ebalu hamaikatxo idazlanen bidez erakutsi dau. Akordura jotort, Juan de Tartas zuberotarraren *Onsa hiltzeko bidia* obrearen argitaraldi barri baten atxakiaz, ironiaz beterik atera eban *Idazle baten zoritxarrak* saiotoxa. Edo Barrutia aramaioarraren teatroaren gainean idatzi zituanak, Azkueren edizinoaren barri barik sekulako aurkikundetzat saldu gura izan ebenen aurrean haserre erakutsiz. Baina euskerazko izkribu eta idatzi gitxi ezagunen kontuan Labayru Ikastegiak be zortxo deutso Aita Linori. Beragandik hartu genduan errastua, argitaratu beharrekotzat jotzen zituan eta gure Ikastegiak egin eikezan obra batzue-na. Horreutariko bat, artean entzuterik nekez genduan Azkueren *Latsibi* elebarria zan, bere garaian Euskaltzaindiagaz koeditatu zana. Aita Linok begiak argitu euskuzan aldi baten beste idazle klasiko eta moderno, testu zahar eta oraintsuagokoen gainean: Juan Mateo Zabalaren sermoiak, Otxoluaren lan argitarabakoak, Bilboko gabon kantak eta abar.

Linoren idatziez zer gaineratu? Saiogiletzat joko genduke, beste arlo guztien gainetik, baina saiogile horren atzean ikertzaile eroapentsua eta kritiko zorrotza dago. Lino Akesolok bere *Idazlan guztiak* obraren lehen tomo biak (Zornotza, Karmel Sorta, 1989) hil aurretioxan argitaraturik ikusteko zoria izan eban, Julen Urkiza ordena-lagunak atunduriko edizino mardul eta ahaleginez beterikoan, Luis Arostegi karmeldarraren hitzaurre zabalaz. Hil eta

gitxira atera zan, eraskin gisa, hirugarren liburukia (1992), eta hor batu zituan bilduma-prestatzaileak, arteragoko bietan sartu barik geratu ziran idatzia-
Izan be, Linoren kasuan erraza be ez zan idazlan guztiak batzea; aldizkari eta egunkari askotan sakanaturik egozalako batetik, eta goitizenez moztorturik askotxo. Ez zan, bestalde, bape zalea bere burua erakusten, nahiz eta jakina izan beraren esku-
tik edo galbahetik igaroak dirala besteren izenean agertu diran liburu eta idazlan batzuk be.

Linoren iker eremu nagusia, euskal literaturari buruzkoa da, ertz diferenteetatik oratzen deusala: euskal idazleak (biografia, sorkuntza); euskal testuak, euron edizinoen nondik norakoa, testuaren ezaugarriak eta on-gatxak, bardin liburuen edo eskuizkribuen kasua; herri literatura be sarri hartu dau mintzagai. Baina badira aurreko alderdiakaz zerikusi gitxia-
go daben gai batzuk be, arduraz jorratu dituenak: historia, kronika eta historiografia, berbarako. Karmeldarren ordenako kideenak, besteak beste.

Linoren berebiziko ezaugarria, alde guztietatik darion zorrotzetasuna eta zehaztasuna: datu ezezagunak bilatzen, agiri-izkribu idatzia-
adi irakurri eta zuzterrez interpretatzen, ondorioak ateraten. Euskal literaturak bere bizialdian izan dauen kritiko zorrotzeta edo zorrotzenetarikoa izan dala, bildur handi barik autortu leiteke. Euskeraz ez eze, gaztelaniaz be idazkera ederra dario, zorrotza izanez gainera, atsegina eta, batzuetan, barre-burla usaina dariona.

Lehen testua: *Atxosterik Atxostera*.

Nikolas Alzola Gerediagak, Anai Berriotxo, *Bitaño* izengoitiaz 1967an argitara emon eban *Atalak* bilduma-liburuari, egilearen eskariari erantzunez, Akesolok idatzi eutsan prologoa¹.

¹ Donostia, 1967, 15-25 or.º

ATXOSTERIK ATXOSTERA

Atxostekoa naz eta Atxostera nator.

Arratia aldeti Durango aldera, bitartean diran hatx-tontor lainozaleen ganeti, Izurtzara luzatu nahi dot eskua, hango seme argi batek eskintzen deuskun euskal liburu barri hau esker onez hartzeko.

Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lehenengo eskola-maixua, *Otamotxa* ezizenez. Atxoste aldeti ekarten euskuen umeai Marie Basokoren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean behin edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lehenago hemendik hara joana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, zantzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten.

Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo behintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure herria baino askoz gehiago ez. Mundu horren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko aldeko mendi erreskadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta han, urrin baten, Burgos aldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izen bakoa.

Urteak igarota, Durango aldean nintzala, barreak emon eustan Atxoste izenori entzunda. Nik Atxosten nintzala uste, eta neu nintzan han atxostekoa, bestaldekoa. “Ara, ba”, esan neban nik, “herri batekoak gara guztiok hemen. Zuek, atxostekoak, gu bere bai».


Izenez bat gareanok, horraitio, ez gara alkartasun txarrean ibili. Gure arteko mendi ta hatxak ez dira muga izan, bide ta zubi baino. Lehenago ez zan oraingo moduan; baterik bestera joateko lehenago ez zan inor zelairik zelai Lemoatik zehar joango; artez hartzen eben mendi-bidea. Holantxe izan da oraintsura arte. Hor dagoz oindino mendiko bideok, hainbeste oinek zapaldu ta sakaturik antxinarik eginak. Eta oinak bakarrik ez; lekuan-lekuan burrinea

ta sutautsa be erabili behar izan ziran bidea urratzeko.

Mendian zehar ibili ohi ziran gure antxinakoak. Holantxe egin ebezan hainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, hainbat ezkontza be bai, alderdi bi honein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko.

Izen bi aitatu nahi ditut hemen Atxosterik Atxostera behinola ibili ziranenak: Pedro Madariaga ta Durangoko Zidarginenak.

Madariaga hori Obako semea dogu, oingo Madaria etxekoa. Orain larehun urtekoa da. Oso gazterik ospe handia atera eban Valentziako Eskola Nausian, kaligrafi-irakasle. Liburu ospetsu baten egilea da. Erdalerrian bizi eta erdaldunentzat idatzi ebanarren, euskaldun agertzen dau bere burua. Berak emonak dira euskal ortografiaz be lehenen-



goko zehaztasunak. Eta ezek be ez eutsan iguin handiagorik emoten, euskaldun erdalzaleak baino. Horrez gainera, gure mendigoi-zaleentzat eredutzat jartea merezi leuke.

Obati Atxostera egin eban, aurki, bere lehenengo urteera. Eta hatxetati zehar, egin be. Joan-etorri hori behin baino sarriago egin ebala dirudi. Eta han goiko hatxetako gorengo tontorrean, ikusita dauko eguzkia bere goizaldeko lehenengoko izpiakaz eta arrastiko azkenengoakaz tontor hori jotzen. Eta han gelditu jakun behin, «zabal-zabalik begiak», Bizkai osoa begipean ebala, Portugaleteko itsas aldera zoraturik begira. Eta handik behera hartu eban azken baten Atxosterako bidea, ikasi-minak bultz eginda, Itziar, Durangoko seme argi baten eskolamutil izateko, eta Italian zehar ibilita gero, bera be maisu handi egitera heltzeko. Atxosterik Atxostera bidean, mutiko zala, asmau zituen sentierak ez zituen harik aurrera ahiztu. Eta bere izena Durangoko Itziar horren eta gure hatx horrein izenaz bat eginik itxi deusku.

Mendi-bideotan ibiliak dira Durangoko zidarginak be. Barriro hasi da oraintsu gure artean zidargin honein izena zabaltzen. Baina gitxik dakiela uste dot, Dimako semea izan zala, Indusi auzokoa, durangar ospetsu horrein ezaupidea lehenengo emon ebana: J. A. Zamakola, Astarloaren adiskide handia, *Historia de las Naciones Bascas* liburuaren egilea.

Hona Indusiko seme honek esana: «Zidargin bi ezagutu ditut nik eta oindino bizi dira, anaiak biak, Juan Kruz eta Antonio izenez; lehenengoa, bertsolari ta soinulari trebea; bigarrena, jantzarako oso iaioa. Bizkaian, eta Bizkaitik harago be, hamaika lekutan izanak dira, auzo eta herrietako jaietara deituta. Lehenengoak sekulako gatza eukan bertso-ginen eta zortzikoak jotzen; bigarrenak, bere umoreko arreba bat lagun ebala (ezkondu bakoa berau), ikusgarrizko jantzaldiak egiten zituen». Horixe dino 1818an Frantzian ateratako liburu horretan.

Zamakolak ez ete zituan zidarginak Indusin bertan ikusi? Han izan ziran behintzat, atxosterik atxosterako osterea eginda, 1793garren urtean, hango jaietarako joanda. Ez ziran bakarrik joan. Lagun ebezan beste bi: Momotxo (Momoitio), tanbolinaz, eta Pepe, atabalaz. Euren kontura egoan jai-eguneko jantzea. Ez eben egun txarra emon. Baina biharamenez izan ziran kontuak. Ilbiztuiko atsoak labasuan baino gehitxoago egin eban hurrengo egunerako (Ilbiztui da Oba ganeko hatx tontorrik gorenetakoa bat, eta lainoz estaltzen hasten danean, Ilbiztuiko atsoa labasuginen hasi dala esaten eben lehenago). Eguraldi txarrak emonda, osterara txarra euki eben. Hor laban ta han jausi, busti eginik heldu ziran Mañarira. Nekez berotu eta bizkortu ziran Txakolin-en tabernan sartuta.

Ez zan izan egun pozgarria Indusiti osterea egin ebeneko hori. Halan esan deuskue, euren bertso batzuetan:

Mila ta zazpirehun da
larogeta hamahiru,
zer pasau jakun aurten
esan behar dogu.

Aiene baten heldu ziran etxera, beste behin
Indusira joateko gogo barik:

Etxera heldu eta
esan neban sarri:
Ez osterara Indusira
Iñuenganeti.
Hagaitik esaten dau
gizon aguduak,
eztabiltzala ondo
munduan zoruak.
Ai ene, ai ene, ai ene bada!

Egun horretan, horraitio, gauzatxo bat ikasi eban gure bertsolariak: Dimati Durangora hautsa saltzen joaten ziran neskatalai erruki hartzen:

Zenbat ta zenbat bidar
ikusten ditut nik,
ira zorro buruban,
ondo kansaturik,
itantzen etxe baten:
«Hautsik bihar dozu?
Honelan euki barik,
arren, esaiguzu»...
Honeek honan ikusiz
eztana biguntzen,
zelango galtzaidua
izan bear daben!...

Ohitura jakingarria Durangoko bertsolari horrek hemen gogorazoten deuskuna. Neskatala horreik eroien hauts hori lexibarakoa zan nonbait, bogadea egin ta zapiak zuritzekoa. Zorionez uste dogu, neskatala horreik bertsolari harein eguna baino egun hobeak hartuko zituezala Atxosteti joan-etorria egiteko. Eta eguraldi onak lagundu ezker, mendi-bide hareik ez dira leku txarrak haize onak hartuaz ibilteko. Azkenengo gerrate ingurura arte dana zan, barriz, han txilina, arrana ta dulun-hotsa. Dana egoan basabehiz, behorrez eta ardiz beterik. Lehen landa eder ta iraleku bedartsu ziranak, orain pinudi dira. Eta ez da entzuten, urrietan, lehenago lez, irabataileen zantzo ta irrintzirik hango baso-bideetan.

Durangoko zidarginen egunak ezker, hiru baserri-etxe sortu ziran hango bakartadean, Baltzolari Iñongana bitartean (Ikusi dogunez, harein bertsoetan Iñuengan da, beste batzuentzat Iguengan eta Iñongan dana). Etxe hareik hustu dira. Edo, hobeto esateko, kanpotxoriak sartu dira eurretan. Udaldia han emoteko, bilbotar batzuk egin dira euren jabe. Eta han dabiltz, besteak beste, agur baten edo euskal abestiren baten truke, aspaldiko Indibiti ta inguruko bazterrak erdal

hotsez betetan. Ai, lehen aitatu dan Pedro Madariaga bizi balitz eta hori ikusi! «Ilbiztuiko atsoa, non zara?», esango leukela uste dot nik. “Zergaitik ez zatoz zeure hatx-gane horretati, zeure inarra ta ipizkiatz, baztererdaltzaileok aurrean hartuta, horti zehar jaurtiten?». Holango izualditxo bat ez ete letorkie ondo? Euskalduntasuna erakusteko, ez ete dogu asmauko era jatorrago ta gizonezkoagorik?

Ordua dot neure atxarteko ibiltaldiari azkena emoteko. Berandu bada be, heldu naz Atxostera. Urrinerik nentorren, bide luzea ekarri dot, eta berandutxo heldu behar.

Aurrean dot izurtzar jator baten liburu hau. Euskalduntasuna erakusteko bide zuzena hemen dogu: euskereari eutsi, euskerea landu, gogo-bide guztietarako gai egin. Euskal izena baino euskal izana dogu beharrago. Eta izate hau ez deusku ez lurraz ez odolak emongo, geure arimearen ordezko lez dogun euskereak baino.

Anai Berriotxoak honetan hartuta dauko bere bidea. Erronkarik eta zaratarik barik, baina nekatu ezinik daragoio lanari, euskal sailetan aztertu ta aztertu, hemen jo ta hor jo. Eta txitean pitean agertzen dira bere ekinen lorratzak, bai euskeraz eta bai erderaz. Eta orain arte eginiko lanen atalakaz, txorta ederrak egiten hasi jaku. Holantxe egin deusku oraintsu, erderazko liburu bat aterata. Holantxe jatorku oraingoan euskerazko honegaz.

Betor zorionean liburu hau euskal literaturaren arloak nasaitu ta zabaltzen. Gairik ugari darabil berton. Baditu jakintzazko gaiak, eta asti-emongarritzakoak; lehenaren barri emotekoak eta oraingoak. Durango aldea ta Bidasoa aldea, lehena eta oraina, Euskalerrria ta atzerria, ikusia eta asmaua, danerik dago hemen. Egileak badaki kanpoko mundura ta gogo barrukora begiraten.

Atal honeik nekez egingo jakoz inori aspergarri. Gaien ugaritasunak eta laburtasunak ez dau horretarako biderik emoten. Berbarik errezinakaz eta larregizko apainkeri barik esanda dagoz gainera.

Ipuina bada, asko orraztu ta biribildu barik dator, baina bere gatzta ta piperra galduazo barik, berba eta esakerarik egokitxoena kaz, herriaren beraren ahoti baltor lez. Izan dira gure artean, herriko ipuinak arean jantzi, orraztu, luzetu ta biribildu egiten ebezanak. Holangoxea zan Mañariko, Kirikiño onaren alabea. Izurtzako seme hau, ostera, zehaztasunari dagokio, ta ipuinaren mamiari bizitasunik kendu barik, esatekoa bere murriztasunean eta soilean esaten daki. Esakerari astuntasuna kentzeko, modu egokia dauko gero, aditza, berboa, noz itxi bear dan jakiteko.

Bere barruko gogamenak azaltzen deuskuzanean be, bardintsu jokatzen dau: berbaz urri, baina zere-santsu. Anai Berriotxo pintatzailea eta dibujogintzari emona be bada; lumaz esaten dituan gauzak be, bere olerki-isuriak be, esango neuke nik irudi baten azpian, *cuadro* baten azpian azalgarri ipinteko eginak dirudiela. Hortik euren laburtasuna. Pintatzaile batek, margolari batek horixe egiten dau: ikuspegi handia dana, oihal baten txikitasunera ekarri. Gure idazle honek bardintsu egiten dau: bere barruko ikuspegiak, handi-handika, laburturik emon, euskera errez gozatsu baten.

Idazkerek, estiloak, norbaiten izakerea ta nortasuna agertu ta salatzen baditu, honen idazkerek beronen arte handia, epea, egoarria agertzen dituela esango neuke. Bere berbai nahinondik darie bake giroa.

Bake giroa, burrukea sortzen daben auzietan be. Hamaika eztabaida eta berbazko burruka sortu da gure artean euskereari dagokiola: herri-hizkuntza dala eta ez dala, gramatika dala eta ez dala. Hainbat auzi, hainbat eztabaida.

Auzi-gai honeitan bere eretxiak ditu eta bere bideak hartuta dabil, aurki, gure idazlea. Baina beste bideren batetik dabilzanan aurka jarki ta ekin barik, edozein eskolakoentzat itzala, begirunea eta txera ona darabiltzala.

Herria izan dau bere lehenengo maisua. Bere herritarrak hartu-emon luzea erabili dauana igar-

ten jako. Izurtzako haizea eta hango euskerearen arnasa dakar bere berbetan. Han aurkitu ta jaso ditu kontagai asko. Han ikasi dau kontagai horreik labur emoten, aditza zelana ta noz esan barik itxi.

Baina bere herriko euskera hutsa ez deusku emon nahi izan. Bizkaiko euskeran batasun bat egiteko bidera etorten ahalegindu da, Izurtzako euskereari berea emonaz nozik behin alkar-jardunetan. Honetan, gure Oskillasoren eskolara hurreratu dala dirudi. Hortik kanpora, nik badakit zelango ahaleginak egin dituen Bizkaiko euskerarentzat batasuna bilatzen. Euskalerrri osoarentzat batasuna egiterik ez dot uste Anai Berriotxoari burura etorri jakonik. Holango auterestirik ez darabil. Ez dau euskalki barririk asmau nahi. Hori jazoten jake sarri batasun-zaleai: euskalkiak, dialektoak itxi egin behar dirala-ta, batasuna behar dala-ta, atxaki horregaz beste euskalki bat, beste dialekto bat sortu ta erabili. Anai Berriotxoak ez dau bide horretara jo. Bizkaieraz egin dau liburu hau. Eta Bizkaiko euskeran batasun-bide bat bilatzeari nahiko eretxi deutso.

Nire ustez, ahalegin honetan hutsetik hasi da, gramatikatxo bat aurrean euki barik. Halan dala, bere asmoetan huts eginda gelditzea ez da harritzekoa, baldin hutsik egin ahal baleite, borondate onez, gogo onez egin dan gauza baten.

Beioaz zehaztasun batzuk. Bizkaian euskera bi izan dira klasikotzat lez hartuak: Mogeltarrena ta Añibarrarena, Markinakoa ta Arratiakoa. Baterik bestera alde handiena aditzean eta fonetismoetan dago. Euskera biok, izan, ez dira ez Markinakoa, ez Arratiakoa, bien artekoa baino. Baina eurok hartu izan dira eredutzat.

Atal honein idazleak zeinetara jo dau? Arratialekora, baina ez beti. Nozik behin bere Atxosteko esakerak, aditz-erak eta fonetismoak urtetan deutse.

Ikusi daigun bat edo bat. Ezbaiak izan ditu, esaterako, *dabee*, *dabie*, *daube* ala *dabe* idazteko. Azken baten *dabe*-gaz gelditu da, baina, hutsen bat

ez bada, behin edo gehiagotan *daube* ikusi dot nik. Gure Atxosten *daude*, *daudie*, *daure* ta *daurie* erabilten dira. *Daude* dakar bizkaierazko lelengo liburuak XVIgarren gizaldian. Bizkaian herri askotan esaten da holantxe, eta badau bere antza Gizpuzkoako *dutegaz*. Baina gure literaturan ez dau indarrrik hartu.

Neban irakurten dot gehienetan, baina batzuetan *naban*. Izurtzako kutsuren bat? Baina nik *naben* entzun dodalakoa daukat Izurtzan beti.

Dautso ta *dautsu* ta honangoakaz be ezbaian dabil. *Deutso* ei da beti klasikoetan. Askok lojika-bidez asmaukotzat dauke beste *dautso* hori. Baina ez da egia. Klasikotzat dago aita Zabala Prantziskotarra, eta Bizkaiko aditzaz egin eban bere liburuan dino *dautso* ta *dautsu* esaten zirala Bizkaiko leku askotan. *Dautzu* esan ezkerro Lapurditarraz bat gatoz.

Geiñean ta *leitzakez* be irakurten doguz liburu honetan. *Giñean* ta *litzakez* asko hobe legokez. *Leiteke* erabilten da; baña *leitzake*? Ez neuke esango.

Illuntzi iluntze esateko Azkuek ez dakar, eta hutsen bat ete zan nengoan ni. Baina ez, halan esaten ei da Durango aldean. Eta bardin ikusi dot Zidarginen bertsoetan. *Arrasti*-ren antzera sortutako hitza ete da, arrastiri, *illuntz*-iri?

Zer da, barriz *agatxa*, *agaztoi*? Oker ez banago, hitz hori beste leku askotako *haretx* eta *haretxi* besterik ez da, errerik ezin-esana daukan baten ahotik urtenda. Bestela, ohartxo bat ez jako txarto etorriko, zer dan jakin daigun. Horraitio, beste behin *aritz*a be aurkitzen dogu.

Eta zergaitik *batoren bat*? Bizkai guztian hartzeko moduko laburpena ete da? Sortzez *bat edo bat*, edo *bat edoren bat* dala esango neuke.

Etara ta *etarte* be Durango aldeko esakerak dira nonbait, beste gehienetako *atera* ta *atarte*-ren ordezkioak.


Fonetismoetan ez darabil beti lege jakinik. Halan, *bier* egin ikusten dogu beti, hurrengo lerro baten *egin-bearrak* esateko. *Zier* dakar sarri, gure *zear*-en orde.

Baten batek oraingo itandu dau: Zetan dabil Atxosteko hau bere Atxostekeriokaz, huskeriok ateraten? Zergaitik? Atal honein egileak halan nahi izan daualako, ez neure atseginez eta gogoz. Izurtzar honek guztien eretxia jakin eta entzun gura leuke, gero berak biderik onena eta zuzenena hartzeko. Guztion atsengingarri egin gura dau lan. Guztion gogoia egin guraz dabil. Esker onez hartuko dau edozeinen eretxia.

Holango gogoia ona ez al da atseginez eta borondaterik onenaz hartzekoa? Nik neuk, Atxosterik Atxostera eskua luzaturik, ahoz eta bihotzez dintsot: «Bota bostekoori. Zorionak, adiskide! Ekin eta jo aurrera, atalka-atalka zeuk gogoian darabiltzan lan handia Euskalerraren onerako osatu arte».

Bigarren testua: *Ipiña eta Ipiñatarren barri* (atalak)

Liburuska hau ez da berez Lino Akesolorena, ez eta beraren izenez agertua. Baina jakintzat emon daiteke, dimoztarraren lumea dagoala testu idatziaren atzean.



Edukiaren egilea, edo batzailea, Fabian Angoitia, Zeanuriko Ipiñako semea dogu, 1890ean jaioa, eta herri-literatura eta herri-jakintza gaietan, seguruenik, Gasteizko Seminarioan zaletua eta trebatua. Hogei bat urte gazteagoa zan Aita Lino, eta honen

galbahetik igarorik inprimatu zan liburuska xume horren testua.

Herri-literatura eta herri-hizkera aldetik dauen edertasunagaitik dakargu gure orriotara.

BASAJAUNAK

Inoiz entzun izango zendun basajaunen izen hau. *Basajaunak* zertzuk zirean jakiteko, izen honek zer esan gura dauen gomutara ekarte baina ez daukazue. *Jaunak*, nagusia, ugazaba edo agintaria esan gura dau, eta *basajaunak*, basoan *jauna* dana edo aginpidea daukana.

Lehenagoko zaharrak esaten eudienez, ikaragarriko gorputza ei eukien, jantzi urdinak erabilten ei eudiezan, eta euren artean ba ei zirean banakaren batzuk, bekokiaren erdian begi bakarra eukienak be. Euren *jauntasuna*, eguzkia sartu eta hurrengo eguna zabaldu artekoa izaten ei eudien. Bitarte horretan basoan aurkituten eudienaren erukia! Baso lanetan ebilzanak arduraz eta bildurrez ibili behar eurakaz. Euren *yauntasun* orduetan basoan aurkituten eudenari, “gaur gauean geugaz izen behar dozu” esaten ei eutsien, eta gehiago gizon horren barririk ez ei zan jakiten.

Legoaldin hasita Otsandagortara arte guztian ei eukien euren aginpidea; eta basorik ilunenetati ibiltzen ei zirean gehien baten.

Gizon okelea janda bizi ete zirean esaten eudien lehenagokoak; ba, armol bitarteak guztiak giza hazurrez beterik agertuten ei zirean. Haugaiti lanean basora joaten zireanak, eguzkia atzerantza itzultzen zaneko, azkorea eta zakua bizkarrean hartuta, egun argiz hartzen ei eudien etxera bidea.

Horraitio, gauetan euren behartxoak egiten ba ei ekien; goldaketan ei zirean mutilak. Mendi ganeti

behera datozen erreka-arroak euren gauetako goldaketaldietan egineko golda-zuloak ei dira.

Atx-kastilloko harri nagusien azpian eukiten ei eudiezan euren batzarrak, eta batu be hainbat egiten ei zirean bakotxean. Ubideko artzain batek goiz baten Muzurutzgo hatx ganeti begituta, hamabiraino ikusi ei zituan Atx-kastilloko harripeti urten, Arraiñetako zubia igaro eta Uguzpe-larrati Otsandagortarantza erreskadan joiazala.

Ipiñaburuko Artea-etseko gizona, eguneko lana amaitutearren, iluntze baten berandura arte gelditu ei zan basoan. Basajaun bi bajatorkoz, “gaur gaua geugaz egin behar dozu”, dirautsiela. Ipiñaburutarak: “Bai”, erantzun eutsien, “baia lehelengo hiruron artean hauxe pagoau erdibitu daigun”. Ziagaz arrakal handia eginda ei eukan pagoori, eta batak alde bateti eta besteak besteti arrakalean eskuak sartuta indar egiteko esan ei eutsien. Hasi dira, ba, basajaunak holantxe indarka; gure gizonak, barriz, kendu deutso zia pagoari, eta arrakalori berez esturirik, basajaunok eskuak arrakalean katigatute eudiezala gelditu zirean. Gizonak orduan, basajaunok han itxita, erdiak baino arinago, sekulako arinrinketadea egin ei oan bere etxeko atea oratu arte.

Basajaunok zelan hondatu zireaneko barririk zaharrak ez deuskue emon; baia, eretxi baten, baso ilunak garbituteak basajaunen azkena ekarri oala esan geinke.

Aita Lino Akesoloren mendeurrena



Derioko Seminarioan nengoala ezagutu neban Aita Lino Akesolo On Karmelo Etxenagusiaren bitartez. Berba gitxikoa, baina gizon handia, gorputzez, izatez eta egitez.

Bere lanetatik lehenengo eskuratu nebana *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* (DRAE) izan zan. Baina ez osoa, lehenengo lau tomoak bakarrik, gainetikoak argitaratu barik egozalako. Gerora, falta ziran tomoak argitaratu zira-nean eskuratu neban hiztegi eder hori osorik. Harrezkero, besteak beste, beragaz daragoiot edozein berba ikusi edo eta aztertzeke.

Aita Linok, euskal idazleak arakatuta egin euskun bere hiztegi ederra baina, hortik aparte, hainbat eta hainbat herri-berba be jaso euskuzan, batez be, Arratia ingurukoak.

Niretzat eredu bat izan da Aita Lino eta, nire iker-lan guztietan, sano lagungarri izan dot, besteak beste, bere hiztegia.

Ni *Zeberio Haraneko Euskeraren Azterketa Etno-Linguistikoa* tesi doktora egiten nengoala, Aita Lino jakitun egoan eta abegi onez hartu eban nire norabidea. Tesiaren defentsa eguna heldu zanean, hantxe neukan Aita Lino, Deustuko Unibertsitateko

Salon de Grados deritzonean, nire defentsa entzuten eta apoiatzen. Benetako ohorea niretzat eta bihotzez eskertzekoa Aita Linoren alborik harako laguntza.

Gaur, bere jaiotzaren mendeurrenean, Aita Lino gogoratu gura dot eta zer hobeagorik bere Dima herrira eta Oba auzunera jotea baino.

Zelan? Ba, aiko. Dimako Obako Antonio Atutxa Izaren esaunda bat eskeintzen deusuet.

Barriemoilea: Antonio Atutxa Iza. Dimako Oba auzunekoak. Aita Lino Akesoloren auzokoa. Kepa

eta Aitzol Atutxa aizkolarien aita eta aitita hurrenez hurren. Gaur Galdakaon bizi da emazteagaz. Hamaika urtegaz Algortako Trinitarioetara joan zan ikasten. Urte gitxi egin zituan eta barriro Dimara. Basoetan lan egin dau egurgintzaren sektorean, herri-idiekaz lehenengo eta gero auto bidez. Fabrikari be ibili da. Grabazinoa 2011-02-17an egin da 81 urtegaz, maiatzean 82 urte egiteko. Bitarteko lez, nire aitaxe eta bere lagun Justo Intxaurraga erabili dot.

DIMA HERRIAREN MUGARRI MITIKOAK

Dima, herri handia da eta horren historia luzea da. Orain esango deusut zergaitino dan handia Dimako herria.

Zamakola izan zan hemen kontornoan gizonik listoenak. Dimakoa zan, hagaitik daukagu herrian bere izena Zamakola iminita.

Zamakolak subterraneo bat eukiten eban eginda han San Balentin esaten jakon lekuan, subterraneo handi bat, zuloa eginda batetik bestera. San Balentin dago Obarantzako bidean, ermitea, eta hantxe, han euki be eukiten eban azpitik kuebea eginda beretzako. Eta egiten eban horrek (Zamakolak) egunez hor, barruan, eta gaez kanpotik.

Eta, baten, pentsau eben herriak guztiak munarritu egin behar dirala, bakotxaren herriak eta ba, tratau eben herrietako gizonak danak hori asuntuori. Eta Zamakola, listoa, bera be besteakaz batera tratuan.

Eta pentsau eben munarritutea. Dimaren inguruan bueltan-bueltan herri asko dagoz, bederatzi hamar edo gehiago, mendiak be kontautu, zeinda, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Villaro ez dakit seguru, Zeanuri, Ubide, Otxandio, Abadiño, Mañari, Durango eta Zornotza.

Eta, Zamakolak esan eutsien ba ze: –Trautau egin behar dogu danok prest egoteko batera oilarrak kan-

tetan dauanean, kaballoora edo dana dalakoa hartu eta bakotxa noraino ailegetan dan hantxe iminteko munarria, azpian teila kaskua dala testigantzarako.

Danak hatan. Baina honek, Zamakolak, izan zan lez hain listoa, zer egin eban? Ba, iluntzerantza arto-urunezko oreari paitarra nahastu eta oilarrari emon jateko eta oilarra mozkor-mozkor egin; mozkorra emon oilarrari. Horretara, goizaldeko hiru terdietan jotan dau oilarrak generalmentean, baina Zamakolarenak gaueko hamabi-hamabietan jo eban, seguru.

Orduan Zamakolak hartu kaballoora eta, taka-taka-taka, Dimari buelta osoa emon eutsan beste herrietakoak itzartu orduko. Baina, baeukan malezia, listoa zan eta. Zer egin eban? Ba bere kaballoori erradurak atzekoz aurrera josi eta holan baterantz joan dalakoan besterantz joan eta munarriak sartu.

Horixe egin ei eban Zamakolak eta horrexegaitik da herri handia Dimako herria eta ingurukoak txikerrak. Hiruzaku egin eutsien Zamakolak inguruko herrikoei. Bueno, gaur Zeanuri be handia da, baina Gorbeierantz hazi egin zalako, baina osterantzean San Blasen dauka Dimagaz munarria. Zamakola listoa e? Listotik be pasautu!

Gose negarra

Furgoneta itxurakoa abiada bizian doa eguerdiko eguzkiak urtutako errepidean. Errepidean, abiada bizian, nora edo nora heldu beharrean. Noizean behin, ustebakoan, eskumatara egiten dau, bide baztarrera, handik zerk edo zerk erakarriko baleu lez, ostera be bide zuzenera egiteko. Sigi-sagaka doa furgoneta itxurakoa errepidean.

Bidaiaririk gehienak lotan doaz beroaren altzoan sigi-saga horrek kulunkatuta. Txoferraren atzeko jesarlekuan doana baina konturatu egin da konturatu eta, gidatuteko modu horri arriskutsu eretxita, zer jazoten ete den dabil. Atzerako ispiluan begiratu eta hantxe ikusiko dau Ali txoferraren aurpegia, kantsau aurpegia, begiak itxi eta zabaldu, zabaldu eta itxi, kliskaka eta aharrasika behin edo behin. Aliren ondoan jesarrita doan Nader bidai gidaria lasai samar doa, oharkabean edo oharkabearena eginez bestela.

Aliren atzean doanak alboko bidaiaria itzartuko dau zertaz konturatu eta horren barri emoteko. Albokoari emondako ukondokoa besteengana hedatu dela emoten dau, bidaiari guztiak begiak zabal, burua tente eta aurrera begira jarri dira eta. Euren artean berba eginda, Aliri eta Naderri, bieci, zerbait esan beharra dagoela erabagiko dabe, euren bizia arriskutik kanpora ikusi gura badabe.

Ea zer jazoten den, txoferrari eta bidai gidariari, ezer be ez honeen bion erantzuna, zer edo zer

baietz, bidaiariak, gidatuteko modu hori ez dela normala, beste zeozer ez esatearren, Ali nekatuta eta logura bada, hobe dabela bidean gelditutea, bertan lo egin daian, aurrera egin baino lehen, baztarraren bat jo baino lehen, arekaren baten amaitu baino lehen.

Alik, ondo dagoela, Naderrek, lasai egoteko, bera txoferraren ondoan doala eta, hori bidaiarientzat lasaigarria balitz bezala, horixe erantzuna horixe, ganera laster geldialditxo egingo dabela, hori entzunda, bai, orduantxe lasaituko dira bidaiariak.

Aurrera doa furgoneta itxurakoa abiada bizian, Alik, bidaiarien begiek horretaratuta, norabidea zertxobait zuzenduta eta mantenduta. Jazotakoaren arrazoi bila dabilz danak, batzuk ahopeka, beste-zuk ahots goraz. Batak, bart lo gitxi egingo ebala txoferrak, besteak, baraurik egoteak Ali ahulduko dauela, gidatuteko erreflejuak galduteraino, hola-koak darabilez ahotan.

Izan be, Ramadan aldia da Tunisiako lur baztarreran. Hilabetea irauten dau eta oraindinoko erdibidean dagoz. Ramadana ondo beteko dauenak ez dau ezer jango, ez dau ezer edango goizaldeko otoitz ordutik harik eta eguzkia sartu arte, arratsaldeko zazpirak aldean. Tarte laburra geldituten jake egunean zehar jan eta edan ez dabena jan eta edateko, horretaz gozatuteko, lo egiteko, egusenti

aurreko gosari goiztiarra egiteko. Eta Ali eta Nader Ramadana ondo bete gura dabenetakoak dira.

Horrexerri egotzi deustie jazotakoaren errua bardin aurrekaldean jesarrita doazen tunisierrek zein atzekaldeko hiru ilaretan jesarrita doazen europarrek. Bat dagoz horretan behintzat kulturok.

Geldialditxoan, europarrek aldean daroen derri-gorrezko uraz aurpegia freskau, hori bai ttanttakarik be edan barik, eta apur bat deskantsauko dau Alik.

Bidaia aurrera, bidaiariak orduan, Ramadanan eskatuten dabezan betebeharrak aldatu ezin direla aldatu, jakina ezetz, baina ea zergaitik doazen hain arin, abiada gorabehera bardin-bardin helduko direla-eta arratsaldeko zazpiretara.

Naderrek, eguerdi osteko bidaiaren helburua El Jem herrian erromatarren sasoiko anfiteatroa ikustea dela, eta barriro be Ramadana dala eta, bisitaleku gehienak ohi baino lehenago zarratuten dabezanez, horrexegaitik doazela abiada bizian, jakinaren ganean dagoelako, ganera, holantxe entzun izan deustalako bidaiarietako bati, El Jem eta Kartago ikusteko etorri dela lurmutur honetaraino, bidai agentziaren egunerokoa be horixe agertzen dela, eta gu, Ali eta biok, horixe beteazoteko gagoz hemen, ez daiala gero inork kexarik jarri.

El Jem zalea eta Naderren erantzun-sortaren erantzulea edo erruduna igerri gurean, bata besteari begiratu eta bakotzak hori besteori nor den erabagi eta gero, aurrera doa bidaiari taldea furgoneta itxurakoan abiada bizian El Jemerako bidean.

Adi eta erne doaz orain danak, ez deustie eguzkiari bere altzoan kulunka daizan itxiko. Txoferraren atzean jesarrita doanak probauko dau atzerako ispiluan begiak zabalik gidatuten dauela Alik. Guztioik izango dira gidatze zuzenaren lekuko. Datilak emoten dabezan palmondoen paisaiaz gozauko dabez begiak bide batez, ordua da horretaz gozatu-teko eta.

Bidaia ondo bideratuta doaneko une horretantxe, hara non agertuten den, hara non ikusten daben neskato bat bide baztarrean, ibilgailua, eurak, geldiazoteko keinuak egiten. Ohituta dagoz errepede baztarrean nork edo nork eroan daian zain dagoen jendea ikusten, egonean izan edo geldiazoteko keinuak egiten, baina ordura artekoan beti izan da heldu jendea, gizonezko helduak, eta ez neskato bat oraingotan lez.

Zer egin ez dakiela gelditu dira, furgoneta itxurakoak, aurrera, bere bideari ekiten deutso, segundotan erabagi behar da, segundotan pentsau eta norbere eretxia emon beharko dau bakotzak.

Naderrek, berak ez dakiela, bidai agentziakoek ez deustiela holakoetarako argibiderik emon, ibilgailu hau antolatutako bidaiaren doazenentzako besterik ez dela, bidaiarietako batzuek, zelan ez gara geldituko ba, zelan ez dogu neskatoa eroango ba, gizajaja, begi ertzetik anfiteatroa ikustea helburutzat dauanaren eretxiaren zain hari erantzuteko, beste batzuek, ez dakigu, zerbait gertatuez gero norena erantzukizuna, ganera leku askorik be ez daukagu hemen eta.

Indartsuagoak izan, norberaren eretxiak aurrera egin daian gaitzagoak izan, inor norbere eretxira makurtuteko hobeagoak izan, azkenean neskatoa eurekaz eroatearen aldekoek erabagi dabe zer egin. Ibilgailua gelditu, atzera eragin, neskatoaren parera heldu eta atea zabaldu deustie. Neskatoaren irribarre zabalak emon deutsez eskerrak.

Irribarreagaz batera eskuari eragin eta aurrera-aurrerako keinua egin deutso palmondo osteko kerizpetan bidaiariak ordura arte ikusi ez daben andreari. Mantarretako umea dakar andreak besotan. Andreak be irribarrez emongo deutsez eskerrak. Hirurak igon dabe ibilgailura. Neskatoa eroatea gura izan dabenek indartuta ikusi dabe euren burua. Leku gitxi eretxitakoek zelan edo halan lekua egin behar izan deutsee hartu barriei.



Isilik doaz danak. Inork ez deutse etorri barriei nora doazen itaundu. Ezta bidai gidariak be, jakitekotan, berak jakin beharko leuke-eta besteen hizkuntza. Danok leku berera doazela emoten dau, emoten dabe.

Furgoneta itxurakoak bidaiari eta pisu gehiago izatera eta umeen errespetuz, abiadura pixka bat gitxitu dau Alik. Bidaiarietako bat, ez da gatxa igeriten nor, anfiteatrorra helduteko berandu eretxita, ufadaka hasi da. Inork ez deutso haren ufadakari jarraitu.

Berbetarako gogoia agertu denean, ondoan jolkona neskatoari aurpegian laztan eginez guapaguapa esaka hasi jakonean, orduantxe, negarrez hasi da mantarretako umea. Besoetan emeki-emeki

kulunkatuz umea baretuten eta isilazoten ahalegindu da ama, lo-kanturen bat be abestu deutso. Alperrik baina, umearen negarrak ez dau konsolamendurik, gero eta indartsuagoa da, haren ama arduratan dago, neskatoak irribarretsu jarraitzen dau, Ali eta Nader etsita dagoz, beste bidaiariek zer egin ez dakienaren urduritasunaz begiratuten deutsie amameei.

Gose negarra eretxita, umearen amak zer edo zer dinotso Naderri. Hizkuntza berekoak izanda, harek erantzun eta luze samar jardun dabe berbetan, hizkuntza ezagutu ez arren eztabaida antzekoa eretxi deutse bidaiariek umearen amaren eta bidai gidariaren artekoari.

Halako baten, Naderrek, buruari buelta emon eta zera dinotse zer egin ez dakienaren urduritasunaz begiratuten deutsien bidaiariei, zera hain zuzen be, umea gose dela, horregaitik egiten dauela negar, bularretako umea denez amak bularra emon behar deustsala, Ramadanak ez dauela holakorik eragozten, gehiagoraindino, bularretako umeak eta bularra emoten dagozan andrak barau egitetik aske dagozala.

Non dago arazoa ba, emon degiola titia eta kitto, horixe erantzun deutse horixe bat eginda oraingoan bidaiariak bidai gidariari.

Naderrek, arazoa non dagoen ondo baino hobeto dakienaren aurpegia jarri eta erantzun deustsie baietz, amak titia emongo deustsala bere umeari,

jakina, baina, andreak esan deustsanez, ezin dauela holakorik egin han barruan, ezezagunez inguratuta, gizonezkoak eurotariko batzuk, gelditu egin behar ko dabela bide baztarrean, han, palmondoen kerizpetan eta lasai, ezezagunen begiradatik libre, umeari titia emon degion trankil.

Umea negar eta negar, Nader esan beharrekoa esanda lasai alde batetik, entzuleriaren erantzunaren bildur bestetik, bidaiariak harrিতuta eta aho zabalik, neskatoa irribarretsu honek guztiak ez dauka nigaz zerikusirik esanez bezala, ama urduri eta erronkari aldi berean, Alik, Ramadanak danok batuko gaituela eta, galgari emon eta bide ertzean aparkauko dau furgoneta itxurakoa.

Loro moko-urdina

Atso bat dago sukalde ilun bateko bazterrean eserita, gaztainak mazpiltzen zorrotzarian mehartu berri duen aitzoaz. Tentu handiz egiten ari da lan hori, lepoko aleak edota arrosario bihiak bailiran. Nekea eragiten diola dirudi, ezpain ertz izerdituak xukatzeari ekiten baitio behin eta berriz, edota buruhausteren bat datorkiola gogora, lokietan eta ezkerreko begixindorrean hazka egiten baitu sarritan. Ez dakit zenbat urte eduki ditzakeen, agian hirurogeita hamarren bat, berari galdetuz gero, ordea, agian hirurogei edota hirurogeita bi dauzkala esango luke zalantzen artean eta garrantzia kendu nahirik edota oztoporen bat (hodei bat, euli bat) eskuarekin uxatzeko asmotan bezala. Nik ere ez dakit zein izen daukan eta ziur aski berak ere ez, batzuetan izen bat esango lukeelako eta, jarraian, aurrekoa zuzentzekotan edo, besteren bat eta gainera ahapeka, argi eta garbi esatera ausartuko ez bailitzan edota hura izendatzea orban lotsagarritzat joko bailuan. Gaztaina zimelduak otarre batean bildutakoan, josten hasi da. Hari-albainua jostorrazaren zuloan sartzen ahalegindu da bizpahiru aldiz, huts egin du, baina azkenean asmatu duela dirudi eta zizpuru txiki bat jaurtiki du, estuasunaren ondorengo garaipenean bezala. Jostorrazta sartu-irtenka dabil oihal zuri-ubelean. Bere mugimenduek min ziztaden antza daukate. Esku zaharretako hatz

hezurtsuek, oraindik ere, zerbait kudeatzeko ahalmenik badaukate, nahiz eta kudeatua oihal kolorge bat baino ez izan. Agian, horrexegatik jitoan doan belaontzi baten konponketan diharduela ematen du. Eserita dagoen egurrezko aulkiak kirrinka egin du ala belaontziak? Gauza da josteari utzi diola. Sukalde ilun eta zaharkituaren zorua eskobatzen dihardu. Albo-alboka mugitzen da, mehaka-hezurra gero eta gaiztotzenago baitoakio eta arrastaka daramatza zapatak. Zapatak koipe marroi gorrixka batez igurtzita ditu, handi samarrak dira eta lokarriak erdi laxatuta dauzka eta, gauzak honela, papina batean ematen dute. Irudikapen hau azpimarratuago gelditzen da atsoaren gorputz mehea eta hanka are meheagoak kontuan hartuz gero. Azken azulejo hezearekin bukatu ostean erratza bazter batera bota du nekatuta edota aspertuta. Ardatz apurtua da erratza. Lapikoan lekariak eragiteko darabilen egurrezko koilara ere ezpalduta dago. Lurrunak eskuak hezetu dizkio eta orduan zimurrak gehiago nabaritzen zaizkio, «labazko gainazal moldatuak» esan dio bere buruari eta pentsatu du gero eta hurbilago dagoela lurretik. Dei edo seinale bezala jaso du lurrunarena.

Bakarrik bizi da, ez du bisitarik izaten eta etxe erdia elbarri dauka edo, bestela esanda, gauza batzuk pixkanaka-pixkanaka apurtuz joan zaizkio eta

bere horretan gelditu dira. Adibidez, neguko arratsalde batean tximistargia bezalako argi izpi batek goitik behera erdibitu zion telebista eta ondoren itzali betirako. Telebistarekin, egia esateko, ez zuen inoiz harreman esturik eduki, ez zegoelako ados entzuten zituen gauzekin eta askotan erdi haserre erantzuten zion erle burrunbaren antzeko marmarreakin. Orain telebista-zuloa aitortzeko dauka eta hain mutu eta hain beltz ikusita elizako begirunea dio. Inoiz ez luke kutxa eramangarritzat erabiliko eta gainetik hautsa kentzen dionean oihal zuri eta berezi batez egiten du. Telefonoak jotzeari utzi zion iaz, hiru aldiz jo zuen, ez zuen hartu eta harrezkero kondenatu bat bezala hormatik zintzilik dagoela dio. Sukaldeko erlojuari besoak duela aste-bete herdoildu zitzaizkion elkarren segidan, aurrena ordu orratza, jarraian minutu orratza eta azkenik segundo orratza eta hori gertatzean hiru atximur nabari zituela bihotzean gogoratzen du, betirako egin baitzien agur. Iratzargailuaren konfiantza atzo galdu zuen, bizirik dagoela azpimarratzen zion tramankuluarena, bizirik egon beharra zeukala gatzigatzen zionarena. Berak ez ziola inoiz zapladarik eman amatatzeko gogoratuko du, ez zuela inoiz uxatu gogoratuko du, txorimaloa edota beletzarra uxatzen diren bezala, soil-soilik ermamietako hezurrez zapaltzen zuela poliki-poliki kotoiarekin egiten den moduan. Orain iratzargailuaren ordeztuntual-puntual (goizeko bederatzieta) aldameneko gaixo asmatiko kronikoaren eztulek egiten diote burrunba barruan. Eta lehen baino pausatua esnatzen da lurrean jarrita daukan lastaira horiaren gainean. Etxeko kartografia gero eta murriztago daukala jakinagatik ere, ez dago atsekabeturik, ez du larri-minik sentitzen, argia begietara heltzen zaion bitartean bizirik dagoela jakin baitaki. Egutegiei buruz berdin esan dezake. 2008ko egutegi baten orrialdeak pakete batzuk biltzeko erabili zituen eta harrezkero ez du egutegien berririk. Osasun aldetik, ez

dabil gaizki, erreumak eta giltzurrunek pixka bat erasaten badiote ere. Telefonorik eta iratzargailurik ez daukanetik etxea isilago dago, asalduretako ez dago lekurik eta gauzak horrela, gehiago biziko dela uste du. Hau aieru edo susmoa baino ez da, baina etxea alderik alde zeharkatzen duen pasilloa bezain luzea eta sakona. Gainera, beste hots batzuekin ordezkatu ditu gabezia horiek, adibidez, diru xehea edota txanpon txikiak itsulapikoetan banan-banan botatzen aritzen da edota guraizeei hotsak ateratzen. Gustatzen zaio airea guraizez moztu eta adabakiak egitea. Bere aisialdiak horrelakoxeak dira. Telebista betirako itzali zitzaionetik kalera gutxitan ateratzen denez, etxe barruan dabil leku batetik bestera, leihotik begira ez dagoenean. Mistela zurrupadak dastatzea ere laket zaio noiz-behinka edota ogia porroskatzea, gero zopa egiteko. Ogia porroskatzean, gainera, denbora joaten ari zaiola bare, espanturik gabe, eta bihotzaren errota moteltzen nabaritzen du. Tarteka-marteka loro moko-urdirik batekin amesten du. Batzuetan negar txiki eta txirikordatuak egiten ditu, agortzearen den iturri batenak bailiran, eta burua erdi ezkututzen du katu batek burua atzapatzean ezkututzen duen moduan, baina gero ahantzi egiten zaio edota hori ematen du.

Lasaitzen denean, ordea, beti irudi berberak datozkio burura. Beti pentsatzen du etxeko teilatua hondoratzearen dagoela, elur maluten pisuagatik beherantz egingo duela eta hura guztia maleta batekin lotzen du, beti heltzearen den, baina inoiz heltzen ez den geltoki batekin. Eta denbora metatuz doa, isiltasuna ere bai, lurrarekin eta itxaronaldiarekin batera. Beste batzuetan azkazal bat erori eta hatza haragi bizitan gelditzen zaiola uste du eta horrekin zera adierazi nahi dio bere buruari: teilatuari teila bat irrist egingo zaiola eta gero elkarren segidan aldameneko guztiek bide berari jarraituko diotela, teilatua larrugorritan utzi arte. Irudiok sartuta dauz-



ka atsoak obsesio moduan eta taupadaka dihardute bere barruan.

Larritasunaren beste atal bat ezkerreko besoaren zaurian dago. Aspalditik dauka eta ez zaio orbaintzen, inondik inora ere. Hasieran saiatu zen liniementuen bitartez, berbena-txaplaten bitartez, baina ezer ez ziotela egiten ohartu zenez, utzi egin zituen sendabideok. Hura agerian, horrela, haragi bizitan ikuste hutsak mina eragiten zionez, merkrominaz estaltzeari ekin zion. Ematen zuen mihise zahar bat pintatzen ziharduela, behin eta berriro igarotzen baitzion merkromina eta hainbeste pintatzearen ondorioz besoa bera zaharbertitzen ari zela. Baina zauria ez zen ixten, aitzitik, zabalagoa zeukan, ertzetan oilaurrak zeuzkalarik. Bendak jarri zizkion eta orduan besoak artifiziale zirudien, ordezkoa. Azkenean, ez merkrominarik, ez bendarik, zauria

airean utzi zuen eta katuek atzaparrak garbitzen dituzten eran miazkatu zuen, jadanik gorputzaren beste atal bat zela onartuz.

Beste batzuetan etxean zehar ibiltzen zen harahonat eta intsektuetan jartzen zuen arreta, labezomorroetan eta burrunzietan, agian zirrikituetatik limurtzen zirelako, bere begirada gero eta zirrikituago bihurtzen ari zelako edota agian haiek bere gainean laster izango zituela auresentitzen zuelako.

Baina bakardadea ez zaiola batere axola esango bagenu, ez genuke egiarik esango. Adierazi, kanporantz adierazi ez du egingo, baina barnealdean zama handia bezala garraiatzen du, batzuetan arrastaka dabil eta burumakur, zeharo, gainean harlauza bat eramango balu bezala. Horretaz landa, 2009ko irailaren erdialdera gutxi gorabehera ezkerreko

belarria izugarri hazi zitzaion. Ispiluaren aurrean jarrita horrek barregura sortarazi bazion ere eta gauza xebreak bururatu arren (belarri batetik gereziak zintzilikatuko lituzkeela, bestetik, ordea, okaranak), minak mingostu zuen azkenean. Ura ponpatzen bailegoan susmatu zuen, bihotz tematia-rekin parekatu zuen delako belarria, zornez eta odolez betetako haginarekin edota maleta batekin. Baina, bestaldetik, hain bakarrik sentitzen zen, ezen belarri mindua aldean eraman nahi baitzuen, belarria minezko sastakadekin eta taupadekin.

Ezpainetan oilaur batzuk atera zitzaizkionean jakin zuen negu atarian zela eta auresentitu inoizko negurik gorriena, bortitzena izango zela. Ez zuen, ordea, ezkerreko besoaren zauriarekin egin zuen bezala mihi hezea igaro, agian oilaurrok bere betean erakusgai eduki nahi zituelako, bere barne minaren ikur. Ukitu ere ez zituen egiten, sarritan azkura sentitu arren, inurri gudarostea hortik zebilela edota arrautza batek erupzioan den mendi ton-torraren barruan egosten ziharduela nabaritzen zuelarik. Hazka egin beharrean sudurra ezker-eskuin mugitzen zuen, besterik ez. Negua aurrera joan ahala, ikortzirindu zitzaizkion eta inguruko azala gorritu, oilaurrok are azpimarratuago utzita. Ezpain ertzaren gaineko haragizko mendikate arrokatsu hura disimulatu nahirik, krema zuri batez estali zuen, neguko giroari apaingarri elurtu bat gehiago erantsiz. Agian horrela ausartu zitekeen kalera irte-tera.

Ezkerreko orkatila ihardukita bazeukan ere, animalien dendara abiatzea erabaki zuen. Belarri mindua zeharo sendatuta zeukan, baina despentsako eskaileratik jaisterakoan, orkatila bihurritu zitzaion. Urte horietan horrelakoxeak ziren kontuak: ateko sarraila lubrifikatu berria zela, leihoko eskudela apurtzen zen; iturginak matxura konpondutakoan, arotzari deitu behar sukaldeko mahai herrenagatik.

Gabonetako jaiak hurbil zeudela-eta, kalea jendez gainezka zegoen, batez ere, saltoki handien inguruak eta Arenala, non Gabonetako jaiotzen lehiaketa bat antolatzen zen. Zuhaitzetako adar biluziek dekorazio gotiko bateko apaingarriak ziruditen. Elur malutak han-hemenka sakabanatzen ziren eta han-hemenka biltzen, jendea bezala. Tapauken eta soingainekoen artean estalita, lurrun-hodeiak zerizkien biztanleen ahoi, eskuek elkar igurtzita bilatzen zuten aterpe, oinek jelazko osinengatik ez zeukaten non pausatu eta urduri antzera mugitzen ziren, txori hankak bezalaxe. Jendearen artean sigi-saga eginez, bide bihurri bezain ezkatutua zizelkatuz iritsi zen atsoa Gabonetako jaiotza batera. Izotz tanta batzuk sudur azpian pila-tuta zeuzkan eta baita ezpain ertzeko oilaurretan ere. Hori nabaritzen zuen. Eskuko ispilua oratu eta begitartearen alde hori islatzerakoan, krema zuria ere izoztuta zeukala jabetu zen: Alpeetako mendikatea zirudien hark guztiak. Ez zuen ukitu, bere horretan egon zedin utzi zuen, zapaldu gabeko gailur elurtuak zirelakoan. Jarraian, artilezko txanoa eta eskularruak egokitu zituen.

Gabonetako jaiotzak beti iruditu zitzaizkion gor-mutu miniaturak, eskuen bitartez egindako keinuen modukoak, eta aurrean zeukana are gehiago. Ama Birjinarren papera betetzen zuena putiklub batean lan egiten zuen neska bat zen, bera bizi zen espaloiko izkinan zegoen lokal ilun bezain zaratatsu batekoa. San Jose, aldiz, janari denda bateko langilea zen, supermerkatu izan gabe denetariko gauzak saltzen dituzten denda horietariko batean aritzen zena, aspalditik hara joateari utzi bazion ere, ondo gogoan zeukana, abegitsua bezain zorrotza baitzen bezeroekin. Jesus haurraren Corte Inglésaren ertzetan ibiltzen zen eskalea ezagutu zuen. Hura ere ezagutu zuen, nahiz eta ile kalparrak eta bizar sarria bezain nahasia zeharo moztu zizkioten eta erauzi soinean eramaten zituen trapu zaharrak eta putzu

ustelen antzeko zapatatzarrak. Larrugorriturik, askoz txikiago eta meheago ematen zuen, sehaska hari hain ondo egokituta. Urte luzeetako lo gabeziak eta amets gaiztoak sehaska horretan berdindu-ko litzaizkiokeela pentsatu zuen atsoak. Oihal xume batez estalirik egoteak gainera urteak kentzen zizkion. Meltxor, Gaspar eta Baltasar ere hor zeuden, egurrezkoak eta bernizatuak zirauten, detaile zizelkatuz, kutsu ezin esan halako hieratiko bat zeriela, harantzagoko urrats batean zihardutelarik. Hala eta guztiz ere, eskuak mugikorrek zeuzkaten, ezpainekin ere keinuak egiten zituzten irribarretsu, irribarreetan opariak ekarriko balituzte bezalaxe eskuetan bainoago. Abereak Plaza Berrian sasoi horretan antolatzen diren azoketatik eta apustueta-rik ekarriak zituzten. Ardiak eta idia Zeanurikoak zirela eta mandoa, berriz, Larrabetzuko baserri zahar batekoa entzun zion atsoak aldameneko gizon kaskagorri eta lodikoteari. Ardiak urrunean bezala antzeman zituen, urrun eta ezkoz eginak. Idia (dema-idia zela argi zegoen, mardulagatik) eta mandoa bizi-bizirik zeuden, zerizkien hats beroak bezain. Lastoak, harriztarrek eta goroldioak ia-ia organikoak ziruditen.

–Zer ongi hor, ezta? –iradoki zion kaskagorriak atsoari, idi eta mando hatsetan bildurik zegoen Jesus haurraren sehaska eskumako eskuko hatz erakusleaz seinalatuz.

Irribarre soilaz erantzun zion atsoak, nahiz eta bere barrurako pentsatu baietz, oso ondo egongo zela han goxo-goxo eta ez pasealeku gordin hartan, hotzak jipoituta. Partaideak ezagutzen zituelako, inoiz baino gor-mutu miniatura adierazgarriagotzat jo zuen Gabonetako jaiotza hura ikusi ondoren, ez zen joan erakusgai zeuden gainontzeko bostetara, Gabonetako jaiotza guztien gainetik loro moko-urdina baitzeukan gogoan. Berantetsirik bezala, oinari oin eginez, Arenalerako zubia hartu zuen.

–Nik ez dizut lororik aholkatzen, depresioak dauzkate eta autolesionatu egiten dira, paparreko lumak banan-banan erauzi eta dena odoletan uzteko joera dute –esaten hasi zitzaion andrea, gero eta ziztu biziagoan hitz egiten zuena–. Eta gainera... –baina ez zion ezer gehiago esan leroei zegokienean.

–Nik, ordea, loro bat erostera etorri naiz, loro moko-urdina –zehaztu zion atsoak, irizpidez aldutuko ez zuela iradokiz.

–Entzun iezadazu, katu bat, katu siames bat, zehazki adieraztearren, hobeto etorriko litzaizuke, bigunak eta malguak direnez, edozein egoerataraz egokitzen baitira –eta oihal bat hartu eta lisatuta, bihurrituta eta jarrera desberdinetan zintzilik jarri zuen–. Ulertzen didazu? –eta jarraian buruko bat, aulki tolesgarri bat, izara bat, kapela bat eta baita eskabel bat ere irudikatu zuen.

–Bai, baina nik ez dut horren beharrik, izan naiteke zaharra, egon naiteke zertxobait elbarri, baina oraingoz behintzat ez dut neure burua ezdeustzat eta ez naiz hain nagitsu, agian etorriko da egun bat, non eskuoihaltzat katu bat beharko dudana, baina gaur egungo egoera ez da hori –azpimarratu zion zertxobait abailduta.

–Zalu baldin bazaude, txakurra ondo etorriko litzaizuke, paseatzera behartuko zintuzke eta horrela, sutondoaz gainera itsasoa ere badagoela ohartuko zara, gela itxiez aparte zelaiak eta pasilloez landa amaigabeko kaleak. Etxean gelditu nahi izanez gero, arrainak ere badituzu, hatzak bailiran mugitzen diren horiek (zetazkoak dirudite, zeta bustizkoak) edota dortokak, edozein gauza egiten ari zarelarik (josten edota telebista ikusten), mugitzen antzemango dituzu, ingurua zaharberitzen.

–Zure iradokizunak interesgarriak iruditzen zaizkit, batez ere, azkena, dortokarena. Baina...

–Beno, beraz, loro moko-urdina. Etxera eraman ahal dizugu. Nahi izanez gero.

–Ez, ez da behar.

Etixerantz loro moko-urdinarekin zihoala, zenbait hitz gogoratu zitzaizkion, adibidez, dendariak esandako «Eta gainera...» hura. Bai, jakin baitzekien loroak berrogei urtetik gora bizi ohi direla. Horretaz gain, ez zion helbiderik eman nahi izan, zeren, Zazpi Kaleetan bizi bazen ere, Zortzigarren Kalean zuen etxea, hots, eskualde hartako lekurik urruneneko eta zaharreneko zokorik kalamastrenean.

Denbora aurrera joan ahala, gero eta makurtzenago doa atsoa, gero eta isiltzenago: kokotsa paparrarekin bat eginda dauka eta esaldi bat osorik ez du jadanik ahoskatzen. Gero eta itzal aienatuagoa da. Gela edo sukalde erdian egoteko aukerarik badu ere, ez du nahi, bazterrera egiten du, sukaldeko mahaia ere zoko batean egokitu duelarik. Berdin gertatu da ohetzat daukan lastaira horiarekin, paretaren kontra jarri baitu. Leihora ere aspaldi da ez dela agertzen. Argiari berari ihesi egiten diolako, agian horregatik koloreak margulduz joan zaizkio banan-banan, eskailera mailak edota eskala bateko notak ahazten diren moduan. Berdea ikusi baino gehiago antzematen du, oso urrutian noizbait existitu izan bailitzan, baina ziurtasunik gabe, eta ametsa baino gehiago balizko amets baten antza hartzen dio eta horregatik atzitu nahi luke, baina ezin,

itzurtzen zaiolako eskuen artetik bezala gogotik ere, kotoia delakoan. Gorria, odolaren kolorea, hura ere desegiten joan zitzaion uretan bezala. Marroia, atsekabeak asko kostata ere, azkenean makaltzen diren eran desagertu zitzaion. Arrosa pastel baten moduan aienatu zen. Horia muga ezezagun horietariko batetik limurtu zen. Beltza une batean erori zitzaion eta betirako. Bakarrik urdina gelditu zen, zurira egiten duen urdin zehaztugabea, loroaren mokoaren kolorekoa. Atxiki zitzaion azkena huraxe izan zen. Pentsa edo hausnar zezakeen zeru puska batez edota burmuinean, hor nonbait, denborarekin gelditu ohi diren urdinxka horietaz, baina ez, loroaren moko-urdina izan zuen azken erreferentea, bakar-bakarrik hil baitzen.

2010eko otsailean loro moko-urdin bat oihi bizian agertu zen Zazpi Kaleetako balkoi urrun eta zahar batean «Hirurogeita hamazazpi urte zeuzkan eta Maddalen zuen izena» esaten. Hiru aldiz errepikatatu zuen hori. Hain nabarmena izan zen albistea, ezen berehala jendetza pilatu baitzen igogailu burgoiaren itxura zeukan balkoi haren azpian. Auzoko batek inoiz ez zuela eskela biziagorik eta tinkoagorik entzun aitortu zuen emozioz. Nik bezala zuk ere irakurle entzun dituzu loro moko-urdinak eman dituen datuak eta ados egongo zara nirekin pentsatzean atsoak etorkizun sena zeukala.

Bortz olerki llabur

1

Zure bozkarioa eta nire tristura
freskagarri goxoa
eta pattar garratza
bezain ongi
nahasi ohi ziren behin...

Cocktail horretatik
erruz edanda
horditu egiten ginen.

Orain, ordea,
egarria asetzeko
zuk nahasi gabeko
laranja ura nahiago
edo kafea.

Ondikotz,
berriro pattar hutsa edateari
eman beharko diot....

2

LOEZINA

Agorrilaren azken egunotan
arginabarra belutzen hasi.

Ohean etzanda, loak hartu ezinik.

Presondegiko foku bat iduri,
ilbeteak bere argi gordina
leihotik zehar parrastaka isurtzen ari,
insomniotik abiatu ihesbideak oro
galazaraziz.

3

ITZULEZINEZKO POEMA

Florentzian ari ginen afaltzen,
Natale izeneko jatetxe zahar
txukun batean.

Urtearen azken eguna izanen zen
menturaz, eta mahai gainean
hamaika kopa bete Chianti eta xanpain
ke lainoen artean hegaka,
ezpain ele-gose, begi eta bihotz
alaien xerka...

Edaririk goxoena, hala ere,
handik hurran
Liguriako itsasora bidean
mantso isurtzen ari zen
ibaiaren izena...

4

Anjel Lertxundi-ri

Oi, gaueko beldurrak
eta eguneko kezkek
suntsitzerik bagenu
goiz oro
ispiluaren aitzinean
bizar-itzala
ezabatzen dugun
bezain aise!

BIHOTZ EPELAK

Marea behera doalarik
ohartuko al dira arrainak
lapurtzen ari zaizkien aberriaz?

Irakiten hasiko ote zaie odola
bihotz barne hotzetan?

Itsas zolako harri gogorren kontra,
isilpean,
zorrotuko ote dituzte,
ezpatak legez,
beren sabel zilarkarak?

Ala, begiak zabal-zabalik beti,
ez dira, gu bezala,
garaipenarekin amets egiten
sekula ausartuko?



Brodatzen ari nintzen baladagaiko Altzaiko aldaera berri bat

Jesús Antonio Cid maisu onari, esker onez

SARRERA

Oraingo lan honetan “El marinero raptor” edo “Brodatzen ari nintzen” baladagaiko eredu desezagun bat argitaratu nahi dugu. Eredu desezagun honek zaharretik berritik baino gehiago du, dudarik gabe. Zaharra da Zuberoako kaier zahar batean transkribatu zelako orain dela mende bat baino gehiago, eta batez ere zaharra da, ahozko tradizio-ko kate horretan ez dakigulako noiztik kantatu den. Berria da, guk dakigula, orain arte ez delako argitara eman ez inongo euskal balada-liburutan ez eta inongo artikulu edo lanetan.

Balada honen gaia itsastarra izan arren, Euskal Herriko lur eremu sartuenean kantatzen zen, Zuberoan, Basabürüa menditsuan, Altzai herrian. Euskal lurraldeetatik itsasotik urrunen dagoen Basabürüa-ko mendiarteko herrixka batean, Altzain, kantatzea harrigarria da. Kasu hau, ordea, ez da bakarra. Xahoren kantutegiko “El marinero raptor”-eko bi ereduak zuberotarrak dira. Kantu-kaierra norena zen ere badakigu Marguerite Pradal anderearena. Bai, halaxe da, kaierearen azalean *Marguerite Pradal* izen-deituren azpian beste zehaztasun bat aurkitzen dugu *Alçay*.

Balada hau idatzirik dagoen kaiereko papera ez da ona, zoritxarrez. Eskuetan hartu eta irindu, desegin, egiten da. Gure balada lau orrialdetan dago

transkribatua, hots, bi orritan, baina kantua ezin izan dugu osorik transkribatu, bigarren orria ez dagoelako osorik.

Gure eredu berri hau hogeai ahapaldikoa da, orain arte ezagutzen duitgunetatik ahapaldi gehien dituen. Gaiari gagozkiola ere orain arte ezagutzen ez ditugun ahapaldi berriak ditu, ikusiko dugunez. Euskal herri literaturako pitxi bitxi eta baliotsu bat da, zalantzarik gabe: gure baladategiko urrezko ale bat. Eta aurkikuntza xume eta polit hau besterengana nahi dugu. Zeruko birtargi bat eskaini nahi genuke, hodeietako zilar argitsu bat, gogoangarria den euskal kanta zuberotar bat. Lan honetan testua bera ahalik eta fidel eta ondoen ematen saiatuko gara.

TRANSKRIPZIO ZUZENA

Atal honetan balada eskuidatzian dagoen bezalaxe transkribatuko dugu. Kantu narratiboa lau orrialdetan transkribatua dago. Lehen orrialdean, lehen lau ahapaldiak; bigarren orrialdean hamargarren ahapaldirainokoak hartzen ditu, baina hamargarrena bera bi orrialdetan transkribatua dago; hirugarren orrialdean hamargarrenaren zati bat eta hama-

bosgarrenerainokoak hartzen ditu; laugarren orrialdean hamaseigarrenetik hogeigarrenerainokoak. Guk orrialde aldaketa markatzeko // zeinua baliatuko dugu. Transkribatzaileak ahapaldi bakoitzari zenbaki bat jarri dio gainean. Lehen ahapaldia markatzeko *1 couplet* dakar. *Couplet* hitza frantsesez kaier askotan ikusten dugun ezaugarria da, dudarik gabe, eta koplak edo kobla baino gehiago ahapaldia edo erdarazko *estrofa* delakoa adierazi nahi du.

Eman ditzagun, aurrera baino lehen, kaieraren neurriak: 172 milimetro zabaleran, 224 milimetro luzeran. Kaiera ttipia da, beraz, eskolumeek erabiltzen duten tamainakoa. Hona, besterik gabe, lehen transkripzioa:

1

Aldichebates nindiègoualaric chalabagian
brodatsen, Mainelbat entsun disut itcha
chon gañen kantatsen itchachon gañen
kantatsen éta koplak éjeric émaiten bis

2

Brodèria plaoutcha éta jouan nintsan
ama gana èia plaçer nundianes éitsi
ichtan bat galèriala kantaibat entsun
beitut hari kloben ikhastéra bis

3

Alhaba àbiloua jaoun gaste haren
gana èia plaçer dianes jin gaour
gourekin aihaitara gaour gourekin
aihaitara éta éni koblen kantatsera bis

4

Jaoun gastia haour naisula ni
mésia soué gana èia plaçer dusunes
jin gaour gourekin aihaitara gaour
gourekin aihaitaraéta éni koblen
khantatsera bis //

5

Andéria imposible dat gaour ène
hara jítia Adia favorable béitu jouan
behar dit aitsina bis

6

Hasteko suc batusu etchian hiou anaié
gaour ni hara jin balin banendi
haièc hil nindiokéié bis

7

Horiéré hala dusu nic badit hiour
ánaié, bena haiètaric batére ésta
émaste es gison éhaile bis

8

Geihiena disut aita santu bigerena
bis érégé bigérena bis érégenéna éta
tippiéna kardinale bis

9

Andèria plaçer badusu ichtan bat,
jin ountsin barnea gero biac
jouanen gira gaour siekin aihaitara
gaour siekin aihaitara éta souri
koblen kantatsera bis

10

Andere aourena fasil heltduda
sarthuda ountsin barnera//
Haibestéréki jaoun kappitagna[c]
énan deio urhe sagara eta harekin
lo belhara

11

Pharti àdi mainèla hala ésak
ountsia o --- boulharian diat
dèsir nian lili bis

12

Kapitagna kapitagna pharkamentu
rèkilan Andéré gacho hori othoi
émosu libertatia bis

13

Mainela mainela hala ésak hala ounts[ia],
ésak ountsia edo galduen duk bisia bis

14

Mainela mainela éta ser phentsatsen
dusu ingoiti éné aita eta ama
éne tcherkhan dabiltsatsu bis

15

Soure aita éta ama souré tcherkhan
es dabiltsa hiou milla lekou atan
hebentic hurun dia beste hai
beste égin éta goué étchialako bis //

16

Maradika dakiola dendariari éhia
sérén hain hertchi égin deion
saiagno houni gèria bis

17

Mainela mainela, othoi phesta
éspata eia li[bra] diokedanes saiagno
honi geria bis

18

Mainela fasil helto da g[ero] [ph]éstatu
do ésata hain besterekin andéré
aourenak érdiatu dut bihotsa bis

19

Marádika balekio aoutsari béchoua
sérén hain sorhots égin deion espata
houni motchkoua bis

20

Mainela mainela idoki ésak hebenti
ountsia es diokéc soporta aima
désépéaturic bis

Atal honetan jatorrizko eskuidatziko testua dagoen-dagoenean jarri dugu, tilde eta ortografia errespetaturik. Bertso-lerroak ere dauden-daudenean jarri ditugu. Transkripzioko punturik zalantzagarrienak tildeak dira. Tilde guztiak grabeak ote dira? Gehienak bai, dudarik gabe. Zenbaitetan, ordea, ez dugu garbi ikusi era baterakoak edo besterakoak diren.

GAURKO ORTOGRAFIETARA EGOKITURIK

Atal honetan gaurko ortografiara aldatuko dugu testua. Puntuazioa ere erantsiko diogu testuari. Ahapaldiak tolesteko orduan bi eratara egin dezakegu, hiru lerrotan edo seitan. Era bateko eta beste-ko abantailak kontuan harturik, hiru lerrotan transkribatzea erabaki dugu.

1

Aldixe batez nindiegularik sala baxian brodatzen,
ma[r]inel bat entzün dizüt itxason gañen k(h)antatzen,
itxason gañen k(h)antatzen eta koplak ejer[r]ik
emaiten.

2

Broderia phausa eta juan nintzan amagana,
eia plazer nündianez eitzi ixtan[t] bat galeriala,
k(h)anta bat entzün beitüt hari koblen ikhastera.
(bis)

3

–Alhaba, abilua jaun gazte harengana,
eia plazer dianez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen k(h)antatzera.
(bis)

4

–Jaun gaztia, haur naizüla ni mezia zu[r]egana,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen khantatzera.
(bis)

5

–Anderia, imposible da gaur ene hara jitia,
adia faborable beitüt[t] jua behar dit aitzina,
adia faborable beitüt[t] jua behar dit aitzina.

6

–Hasteko, zük batüzü etxian hi[r]u anaie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.
Gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.

7

–Hori ere hala düzü: nik badit hi[r]ur anaie,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile.

8

Gehiena dizüt Aita Santu, biger[r]ena Er[r]eje,
biger[r]ena Er[r]eje eta tipiëna kardinale,
biger[r]ena Er[r]eje eta tipiëna kardinale.

9

–Anderia, plazer badüzü ixtan[t] bat jin untzin bar-
ne[r]a,
gero biak juaen gira gaur ziekin aihaitara,
gaur ziekin aihaitara eta zuri koblen k[h]antatzera.
(bis)

10

Andereaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera,
hain[n]bestereki jaun kapitaiña[k] eman deio ürhe-
-sagar[r]ra,
[eman deio ürhe-sagarra] eta harekin lo-belhar[r]a.

11

–Pharti adi, ma[r]inela, hala ezak untzia,
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a],
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a].

12

–Kapitaiña, kapitaiña, pharkamentürekilan!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!
andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!

13

–Ma[r]inela, ma[r]inela, hala ezak, untzi[a]!
Hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia,
hala ezak untzia edo galdü[r]ren dük bizia.

14

–Ma[r]inela, ma[r]inela, eta zer phentsatzen düzü?
Ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabilzazü,
ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabilzazü.

15

–Zure aita eta ama zure txerkhan ez dabilza.
Hi[r]u milla lekuatan hebertik hür[r]ün dia,
beste hai[n]beste egin eta gu[r]e etxialako. (bis)

16

Maradika dakiola dendariari e[r]hia!
Zeren hain hertsu egin deion saiaño huni ger[r]ia,
zeren hain hertsu egin deion saiaño huni ger[r]ia!

17

–Mainela, mainela, othoi, phesta ezpata,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia.

18

Ma[r]inela fazil heltü da g[ero] [ph]estatü do ezpata,
hainbesterekin anderaurenak erdi[r]atü dü bihotza,
hainbesterekin anderaurenak erdi[r]atü dü bihotza.

19

–Maradika balekio a[r]utzari besua!
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua,
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua.

20

–Mainela, ma[r]inela, idoki ezak heberti untzia!
Ez diokek soporta a[r]jima desespe[r]aturik,
ez diokek soporta a[r]jima desespe[r]aturik.

Pertsonaia diferenteak desberdintzeko gidoia jarri dugu. Lehen bi ahapaldiak narratzaile bati dagozkio; narratzaile hori anderea edo anderaurena da. Hirugarren ahapaldia amari dagokio. Hirugarren ahapaldian ama alabari zuzentzen zaio. Eskena hori ama-alaben etxean lekutzen edo kokatzen da. Laugarren ahapaldian anderea kapitainari zuzentzen zaio. Beste eskenaleku bat dugu, beraz. Untzi-gainekoa edo untzitik hurbil dagoena. Beste eskenaleku hori laugarren ahapalditik bederatzigarrenenarainokoa dugu. Eskena horretan andere eta kapitainaren arteko elkarriketaz osatua dago. Hamargarren eskena deskriptiboa da: hurrengo eskenarako bidea ere egiten du. Hamaikagarren ahapalditik hamahirugarrenaraino kapitainaren eta marinel onaren arteko elkarriketa dugu. Hamalau eta hamabost ahapaldiak beste eskena bati dagozkio, marinel onaren eta anderearen artekoari. Hamaseigarren ahapalditik hemeretzigarrenarainokoak anderaurenaren eta marinel onaren artekoak dira. Ahapaldien ordenari gagozkiola, ordena logikoa beste bat litzateke: 16, 19, 17,18. Azken ahapaldia kapitainaren eta marinel onaren artekoa da, eta azken eskenari dagokio.

1. complet

Aldichebates nindièquatarie chalabagie
brodatsen, Mainelbat entsum ditut itcha
chon gamen Kantatsen itchachon gamen
Kantatsen éta Kôplat éjerie emaiten bis

2

Proderia plaoutcha éta puan nintsan
ama gana eia placer mundianes éitri
ichsan bat galériata Kantatbat entsum
beitut hari Kloben ikhastéria bis

3

Alhaba àbiloua poum gaste hasen
gana eia placer dianes jin gaour
gaourekim aihaitara gaourgaourekim
aihaitara éta éni Kô Kôben Kantatsen
bis

4

paoun gastia haour naisula ni
gnésia soué gana eia placer dusum
jin gaour gaourekim aihaitara gaour
gaourekim aihaitaraéta éni Kôben
Kantatséra bis

5

5

Abderia imposible dat gaour ène
hara jitia Adia favorable beitu jouan
behar dit aitsina ^{his}

6

Hasteko suc batuse echiem ^{hiou} anaie
gaour ni hara jin balin banendi
haiee hil nindiotheie ^{his}

7

Houiere hala didu nic badit hiour
anaie. bona hasietarie batere esta
emaste es gison ehaile ^{his}

8

Geihiena didut aita bante ligerena
^{his} erege ligerena ^{his} eregemana eta
tippiena Kardinal ^{his}

9

Abderia plazer baduse ichtan bat
jin ountsin barnea. gero bias
juanen gira gaour siekin aihaitara
gaour siekin aihaitara eta souri
Kobben Kantatsera ^{his}

10

Abdere aourena fasil heluda
sarthuda ountsin barnera

Hai bestèrèki jaoun Kapitagna
ènan deio urhe sagara eta haretin
lo belhara

11

Phanti adi mainela hala èsak
ounzia c loulharian diat
desir nian ~~maia~~ lili bis

12

Kapitagna Kapitagna jharbamentu
~~rekilant Anaièrè Gachhori othoi~~
èmosu libertatia bis

13

Mainela mainela hala èsak ^{ounzi} hala
èsak ounzia edo galduen dusb bisia
bis

14

Mainela mainela eta se phentzatu
dusu iq ingiti èné aita eta ama
ène tcherkhan dabiltsatu bis

15

Soure aita eta ama soure tcherkhan
es dabiltsa hion milla e leban atan
hebentia huirun dia ~~ta~~ beste hai
beste ègin eta ~~ta~~ goué ètchialabo bis

Maradika daktola dendariani eha
seren hain hain heriki egin deion
saiagns houni geria bis
17

Mainela mainela othai phesta
'espata eia e, diokedanes saiagna
honi geria bis
18

Mainela fasil hettu da ^{estatu}
do espata hain besterekin andere
aouronak erdiatu dut bihotz bis
19

Maradika balekio aoutari beghoua
seren hain sorhott egin deion espata
houni motchkoua bis
20

Mainela mainela isloki etak hebenti
cuntria es diokéc soporta aima
des'espaturic bis

AHAPALDIZ AHAPALDIKAKO IRUZKINA

Atal honetan, lehen transkripzioa oinarri harturik, grafia-ortografiak gaurkotuko ditugu. Zalantza batzuk argitzeko, Xahoren bi ereduak ahapaldiak ere ekarriko ditugu atal honetara. Ahapaldia-
ren transkripzioak sortu dizkigun arazoak azalduko ditugu batez ere.

1

Aldixe batez nindiegularik sala baxian brodatzen, ma[r]inel bat entziün dizüit itxason gaiñen k(h)antatzen, itxason gaiñen k(h)antatzen eta koplak ejer[r]ik emaiten.

Lehen ahapaldi honek ez du zalantza handirik sortzen. Lehen transkripzioari gagozkiola, lehen lerroan *bagian* ikusten dugu transkribatzaileak leku faltaz azken *-n* apur bat oker eta orrialdearen ertzean idatzirik. Lehen *gaiñen* delakoan, inesibo arkaikoa mugagabea, argi ikusten da marra *-n-* horren gainean. Bigarreanean, ez da hain argi ikusten. Denok ontzat ematen dugu *gaiñen* inesibo arkaikoa dela, *haintzurren*, *ihizen*, eta abar bezala. *Itxason* ere inesibo arkaikotzat hartu behar ote dugu? Ez da, dena dela, eredu honetan bakarrik ematen. Xahoren bigarren ereduaren halaxe ikusten dugu: *itxason*.

Transkripzioari gagozkiola, *ch* gaurko *x* bezala transkribatu dugu *Aldiche* hitzean. Nola transkribatu behar ote dugu, *chala* eta *itchachon* horietan? *Xala* eta *itxaxo*? Zuberoko testua dugunez gero, *itsa*/*itxahorien* artean bigarrenaren alde egin dugu¹. Bukaerari gagozkiola, *-cho* hori *-so* egin dugu.

¹ Honelaxe agertzen da *Orotariko Euskal Hiztegia*: Itsaso hitzean, “La mayor parte de los suletinos, salvo Archu y Casenave), y algunos autores bajo-navarros (Dechepare, López (v. itsasbazter), emplean la forma *itxaso* en Xarlem, UskLiB, Eguiateguy, Inchauspe, Etchamendi. Hay Tbn. Alternancia de las dos formas en Tartas.

Lehen ahapaldi honek Xahoren ereduak lehen ahapaldiarekin berdintasun handia du: *Aldichebatez nenguelaric/ Salabachian Brodatzen/ eskutari bat entzun nizun/ Galeriatu khantatzen/ Galeriatu khantatzen eta/ Kobla ederren emaiten*. Lehen ereduarekin berdintasun handia badu ere, bigarren ereduarekin berdintasun handiagoa du: *Aldixe batez nenguelarik sala baxian brodatzen,/ kapitain etziün dizüit itsason gaiñen khantatzen,/ itxason gaiñen khantatzen eta kobla eijerrik emaiten*.

2

Broderia phausa eta juan nintzan amagana, eia plazer nündianez eitzi ixtan[t] bat galeriala, k(h)anta bat entziün beitiit hari koblen ikhastera. (bis)

Ahapaldi garbia da letrari dagokionez. Badirudi, hala ere, zenbait huts egin dituela transkribatzaileak. Has gaitezen lehen kontuarekin. Nola idatzi du transkribatzaileak *plaoutcha* edo *phaoutcha*? Lehen garbi eta argi badago ere, bigarrena izan behar du nahitanahiez.

Badago beste kontu bat ere. Lehen idazkeran *icha* idazten ari dela, zuzenduz, *ichtan bat* jarri du transkribatzaileak. Era berean, *kantaibat* irakurtzen da eskuidatzian. Transkribatzaileak, metatesis bat eginez, *koblen* jarri beharrean *kloben* jarri du. Hala transkribatu behar ote dugu bigarren transkripzioan? Ezetz uste dugu, hirugarren ahapaldian ere *kl-* batez hasi ondoren, ezabatu, eta *koblen* idatzi baitu. Bi eretatik, bestalde, *koplen/koblen* horietarik, zein aukeratu behar ote dugu? Bi aukeretatik ugariena da bigarrena. Baliteke, era berean, modu bietara esatea ere. Lehen ahapaldian *koplak* jarri dugu, jatorrizko eskuidatzian bezalaxe, eta gainerakoetan *koblen*. Era horretara, eskuidatziaren legea dakargu transkripzio honetara.

Ahapaldi honetan agertzen den *eitzi* (eskuidatzian *éitsi*) zubererako “utzi” dugu. Forma zaharra **eutzi* batetik letorke, Mitxelenak dioenez.

–Alhaba, abilua jaun gazte harengana,
eia plazer dianeaz jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen k(h)antatzera.
(bis)

Ez du gorapilo handirik sortzen testuaren transkripzioak. Bestaldeko tradiziozko erara dago transkribaturik *haren gana*, bereiz edo bi hitzetan. *Gaur* adberbioak “gau honetan” esan nahi du, eta ondo dator, beraz, *aihaitara*, hots, “afaritara” hitzarekin.

–Jaun gaztia, haur naizüla ni mezia zu[r]egana,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen khantatzera. (bis)

Hizkuntzari gagozkiola, gogora dezagun lehenik, *haur naizüla ni* delakoak “hona hemen nauzula (zuk) ni” adierazi nahi duela edo “etorri naiz”, “horra niz, naizü” adierazi nahi du. Ahapaldi honetan agertzen den *haur* honek ez du “haur” edo “sein” zentzuekin zerikusirik. *Haur* honek “hona hemen” adierazi nahi du. *Haur ola zirola* erretrauean agertzen den “haur” bera dugu, beraz. Bigarrenik, *mezia zu[r]egana* hori “mezua”, hots, “afaltzeko mezua” zuregana ekarri dudala nago ni, esan nahi du. Laugarren ahapaldi honetan jarri du lehenengoz *khantatü* hasierakoa *kh-* duela. Gainerako guztietan ez duenez jarri, hala behar duelakoan guk jarri dugu transkripzio gaurkotu honetan.

–Anderia, imposible da gaur ene hara jitia,
adia favorable beütü[t] juan behar dit aitzina,
adia favorable beütü[t] juan behar dit aitzina.

Ahapaldi honek ere ez du transkripzio eragozpenik. Adizkien artean, *dat* garbi ikusten da. Nola

transkribatu gure bigarren transkripzio honetan *da* edo *dat*? Xahoren bigarren ereduiko bosgarren ahapaldia gure honen oso antzerakoa da: *Anderia, imposible da ene hara jitia, / airia favorable dit eta juan behar aitzina, / airia favorable eta juan behar aitzina*. Kontuak honetara, *imposible da* jarri dugu bigarren transkripzio honetan.

Ez dago dudarik, bestalde, *adia* delakoa “airia” dela, untxiak nabigatzeko behar duen haizea.

–Hasteko, zük batüzü etxian hi[r]u anaie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.
Gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.

Ahapaldi hau guztiz garbia da transkripzioari dagokionez. Hiru anaien aipamena ez dugu orain arte gai hau duen beste inongo baladatan aurkitu. “Frantziako anderea” baladan, Nafarroako Elizondoko ereduari, bi anaia eta arreba bat agertzen dira.

Ahapaldi honetan agertzen den baldintza hau guztiz markagarria da, dudarik gabe. Adizkiei gagozkiela, *jin banendi* horrek “joango banintz” adierazi nahi du, *edin aditz laguntzailea jokaturik. Baldintzaren ondorioa *nindiokeie* da *iron aditzaren forma jokaturik *nindirokeie* batetik letorke eta *hil nintzakete* edo *il nentzakete* adierazi nahi du. (Haiek *ni hil nazakete*, baina ondorio hipotetikoago batean *hil nintzakete*, alegia.) *Iron aditz jokatuaren adizkiak azken ahapaldietan eta beste batzuetan ere ikusiko ditugu. Dena indikatiboko aditzekin erabiliz honela ulertuko genuke “*Gau honetan ni hara joango baldin banintz, haiek ni hilgo nindukete*” adierazi nahi du.

–Hori ere hala düzü: nik badit hi[r]ur anaie,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile.

Ez du transkripzio arazorik. Neskatxak dioenean bere hiru anaietarik inor ez dela *gizon-e[r]haile* “gizon hiltzaile” esan nahi du. Gizon-e[r]aile konposizioa berria genuke, konposizio zaharra *gizer(h)aile* dugu Leizarragak lehenengoz dakarrena eta Jon Mirandek ere erabili zuena bere idatzie-tan.

8

Gehiena dizüt Aita Santu, biger[r]ena Er[r]ege, biger[r]ena Er[r]ege eta tipierna kardinale, biger[r]ena Er[r]ege eta tipierna kardinale.

Transkripzio zuzena egitea erraz xamarra dugu. Duda bat *érégenéna* horrek ematen du. Badirudi *errege* eta *bigerrena* nahastu dituela. Nola ulertu behar dira, bestalde, agertzen diren hiru *bis* horiek? Uste dugu transkribatzaileak huts egin duela eta nahastu egin dituela bis horiek. Nola transkribatu behar ote dugu *tippiena*? Transkribatzaileak *ttipiena* esan nahiko ote zuen?

Gehiena horrek nagusia esan nahi du. Anaia nagusia Aita Santua dela, alegia.

9

–Anderia, plazer badüzü ixtan[t] bat jin untzin barne[r]a, gero biak juaen gira gaur ziekin aihaitara, gaur ziekin aihaitara eta zuri koblen k[h]antatzera. (bis)

Letra argiko ahapaldia. Ahapaldi honetan ere *kantatzera* dator eskuidatzian. Bestetan agertzen den *kh-* batez transkribatu dugu. Ahapaldi honetan hurrengo ahapaldian ere etorriko den egitura dator: *untzin barnera*. Xahoren A erduan ere berdin ikusiko dugu *untzin barnera*. Ahapaldi honek Chahoren B erduko seigarrenarekin du zerikusia: *Anderia, othoi sar zite untzi hunen barnera, gero biak*

jun ginteke hekin aihaitera, hekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

10

Andereaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera, hain[n]bestereki jaun kapitaña[k] eman deio ürhe-sagar[r]ra, [eman deio ürhe-sagarra] eta harekin lo-belhar[r]a.

Transkripzioari gagozkiola, has gaitezen hainbat konturekin. *Anderaurena* hitza ikusten dugu lehenengoz balada honetan. Orain arte *andera* deiki edo deigarrian ikusi dugu. Oraingo ahapaldi honetan estilo zeharrera goaz. *Anderauren* hitza andere goi mailakoa adierazteko da. Beste balada batzuetan ere ematen da, Zalduko baladan, esaterako. Xahoren A erduan ere *anderauren* ikusten dugu.

Transkripzioari dagokionez, bi eratara esaten da *heltu da* eta *sarthuda*. Lehen idazkeran, *hetu da* idatzi du transkribatzaileak, eta gero *-l-* tartekatuz, *hel-tu da* irakurtzen da. Nola transkriba *fasil* delakoa? Bi aukeretatik, *fasil* eta *fazil* horietatik, zein hauta? Aukera horretan bigarrenaren alde egin dugu guk. Beste transkripzio arazo bat *enan deio* horretan dugu. Argi dago *eman deio* izan behar duela.

Ahapaldi hau irakurtzeko gakoa, ordea, Xahoren A erduko zazpigarren ahapaldian dugu: *Anderia erho heltu/ Sarthu da ountzin barnera/ Eskutariak harekilan lo belharra golkhora/ lo belharra golkhora eta/ Belaren desplegatzer.*

11

–Pharti adi, ma[r]inela, hala ezak untzia, o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a], o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a].

Ahapaldi honek baditu irakurketa arazoak. Orrialdeak hutsunea du eta *ountsia* eta *boulharian* hitzen artean ez da ezer irakurtzen. Zein izan liteke falta den hitza? Ahapaldi hau ezagutzen ditugun

Xahoren beste biekin konparatzea da hutsunea betetzeko bideetako bat. Xahoren B ereduan, VIII ahapaldian. hauxe dator: *Marinell, marinella/ thira ezak untzia/ Aspaldian desir niana/ jin dük bera eskura*. Eredu honi erreparatuz gero, *aspaldian* izan beharko luke hitza. Falta den hitza, ordea, *o-* batez hasten da eta laburra da, hiru silabako hitza ez bailitzateke tarte hain estuan, edo hain leku txikian sartuko. Ahapaldi hauen neurria 8/7A/8/7A/8/7A dugu. Ez ote da, beraz, *orai* hitza? Irudiaren aldetik ere ez ote dator ondo adierazia *bulharrian izatea lilia* beste ereduetakoa “eskura etortzea desira zuena” bezalaxe?

Maitia hitza ezabatu egiten du transkribatzaileak eta *lili* jartzen du ondoan. Hala ere *untzia* hitzarekin hokide izateko *lilia* izan behar luke.

12

–Kapitaiña, kapitaiña, pharkamentürekilan!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!
andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!

Ez du ahapaldi honek transkripzio arazorik izan. Hoskidetasuna, ordea, ez da zaintzen bestetan bezala. Xahoren B ereduko IX ahapaldiak honelaxe dio: *Kapitaña, kapitaña, pharkamentü eske nauzü, andereauren hori, othoi, libra ezazü*.

13

–Ma[r]inela, ma[r]inela, hala ezak, untzi[a]!
Hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia,
hala ezak untzia edo galdü[r]ren dük bizia.

Orrialdearen eskuinaldea deseginxea dago, ez dugu uste, hala ere, testurik galdu dugunik. Transkribatzaileak *hala ésak hala* idatzi ondoren, gainean *ountzi[a]* jarri du. Transkripzioak, ordea, ez du galerarik, irakurtzen ez dena hitz baten bukaera delako; eta *untzi-* horren ondoren *-a* etorri behar bizia hitzarekin hokide izateko.

14

–Ma[r]inela, ma[r]inela. eta zer phentsatzen düzü?
Ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü,
Ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabiltzazü.

Ez du transkripzio arazorik. Ahapaldi hau anderaurenak marinel onari zuzendua da. Xahoren B ereduko hamargarren ahapaldiarekin du zerikusia: *Marinella, marinella! Idek ezazü bortha! Ingoiti ene etxeuak ene unduan beitira! Ingoiti ene etxeuak ene unduan beitira!*

15

–Zure aita eta ama zure txerkhan ez dabilta.
Hi[r]u milla lekuatan hebentik hür[r]ün dia,
beste hai[n]beste egin eta gu[r]e etxialako. (bis)

Errima galdurik du ahapaldi honek. Lehen begiratuan, badirudi ahapaldiaren zentzua bakarrik transkribaturik dagoela. Hala ere, ezagutzen ditugun beste erduekin berdintasun handiak ditu. Hona, diogunaren froga argi bezala Xahoren B ereduko hamaikagarren ahapaldia: *Hebetik eta zure etxera berrehün lekua da/ eta haibesteren bürian eniala heltüren gira, eta hainbesteren bürian eniala heltüren gira*.

Hitz batek transkripzio arazoak sortu dizkigu balada honetan. Nola transkribatu behar da *haibeste* edo *hai[n]beste*? Ahapaldi honetan zein hamargarren ahapaldian *haibeste* ikusi dugu. Chahoren B ereduko hamaikagarren ahapaldian *haibesteren* zein *hainbesteren* ikusten dugu.

16

Maradika dakiola dendariari e[r]hia!
Zeren hain hertsu egin deion saiaño huni ger[r]ia,
zeren hain hertsu egin deion saiaño huni ger[r]ia!

Ez du transkripzio problema handirik. Bi aldiz jarri du *hain*: lehena *hayn* eta ondoren *hain*. Lehe-

na gainetik ezabatu duenez, bakarra jarri dugu guk. Bete-betea du oskidetasuna edo errima *e[r]hia* eta *gerria* hitzetan. Xahoren A ereduan, XII ahapaldian, errima galtzen da *orratza* eta *gerria* hitzetan: *Maradika dakiola dendariari orratza!/ zeren hain hertzi egin dien kota hunen gerria,/ kota hunen gerria eta ene bihotzeko pena.*

Ohargarria da, bestalde, ahapaldi bietan agertzen dela *maradika* eta ez *madarika*. *Madarikatu* aditza zabalago dabil *maradikatu* baino. Aditz honek metatesis bidez *maradika(tü)* ematen du. *Maradikatu*, ordea, latinezko *maledicere* aditzetik hurbilago ikusten dugu.

17

Mainela, mainela, othoi, phesta ezpata,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia.

Hemen ere paperak zulo bat agertzen du. Ahapaldi honetan *eia* horren ondoren *l-* bat ikusten dugu, nahiz eta zuloak hasierako *l-* hori marra bitan zatitu. Hitzaren hasiera garbi dugu beraz: *l-*. Kontsonante horren ondoren *-i-* baten hasiera ikusten dugula iruditatu zaigu. Baina izan liteke beste zerbait ere. Xahoren bi ereduetan agertzen da ahapaldi hau. A ereduan, 11 ahapaldian: *Pheresta, ezküitaria, pheresta zure ezpata/ kota-gerria thinkegi beitiüt larga dezadan jostura;/ jostura larga dezadan eta ena büria deskantxa.* Eredu honen arauera *larga* izan liteke aditz-erroa. Xahoren B ereduko 12 ahapaldian: *Jauna, pheresta izadazü istan bat zure sabria,/ nahi nizezü laxatü mement bat ene zintura,/ nahi benüke laxatü istant bat ene zintura.*

Kontuak honetara, hiru aukera ditugu *libratü/largatü/lachatü* hirurak *l-* batez hasten baitira, eta hiruren erroa izan bailiteke: *libra/larga/laxa*.

18

Mainela fazil heltü da g[ero] [ph]estatü do ezpata,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza.

Bigarren orrian, gure ahapaldi honetan arazotxoak ditugu. Ahapaldi hau transkribatzeko orduan, *heltu da* horren ondoren paperak zulo handisko bat du. Ikusten den hurrengo hitza *éstatu* da. Garbi dago zulo horren azpian kontsonante baten arrastoa edo marra agertzen dela. Kontsonante hori *-p-* edo *-g-* ote da? Paperaren zuloa hartzen duen hitza ez dut uste *éspata* izan litekeenik. Hurrengo gorapiloa errazagoa da askatzen. Gure ustez *éstatu* horren kontsonante hasiera *-p-* kontsonantea izan liteke. Hain garbi ikusten den *do* hori *diro* baten laburpena izan liteke. Delako *diro* adizkia ez dator *iron aditzetik, *dereio* eta are laburragoko *deio* adizkiaren laburpenetik baino. Xahoren A ereduko XI ahapaldiak ematen digu argia: *Eskutaria erho heltu, emaiten diro ezpata,/ anderaurenak harekila sarthu du bihotziala, / bihotziala sarthu eta ichuri bere odola.*

Nola ulertu behar *dugu erdiatu dut bihotza?* Andereak bihotzean sartzen du ezpata Xahoren A ereduan. Baina ni baten ikuspegitik *bihotza erdiratü dereit/deit* ulertu ote daiteke? Aurreko zortzigarren ahapaldiko *inposible dat* bezala azken *-t* soberan dagoela ulertu behar dela deritzat.

19

Maradika balekio a[r]utzari besua!
zeren hain zorhotz egin deion ezpata huni moskua,
zeren hain zorhotz egin deion ezpata huni moskua.

Transkripzio errazeko ahapaldia. Eskuidatzitiko *bechua* delakoaren transkripzio zuzena *bexua* izan beharko luke. Era berean, *motchkoua* horrena *motxkua*. Ez dugu uste palatalizazioa hain muturrera

eraman behar denik. Ahapaldi honetan zein Xahoren 13garreanean, *arotz* bietan *h-* gabe dator. Era berean, bokal arteko *-r-* galdu ondoren *aotz* hori *autz* bihurtzen da. Hitz hau, jakina, *aoutz* transkribaturik (*aoutzari*, datiboan dagoela) ikusiko dugu. *Arotz* honek “errementari” adiera du.

Oso antzera dator Xahoren A ereduko 13. Ahapaldia: *Maradika dakiola arotzari bessoual zeren ain zorrotz egin dian ezpata houni moskoual/ ezpata houni moskoua eta maitiaren phentsamentia.*

20

Ma[r]inela, ma[r]inela, idoki ezak hebenti untzia!
Ez diokek soporta a[r]jima desespe[r]aturik,
ez diokek soporta a[r]jima desespe[r]aturik.

Transkripzio aldetik ez du inolako arazorik sortu. Bukaera honen antzekoa dugu Xahoren A eredu. Eredu horretako azken ahapaldiak gure azkena ere argi dezake, neurri handi batean. Gure ereduko *idoki ezak* aginterak “ken ezak” esan nahi du. Marinalak untzia dagoen lekutik kentzeko agintzen dio. Honelaxe agertzen da Xahoren A eredu: *Idek, marinalak, idek idekazie untzia!* Bada, beste-

tik, kontu interesgarri bat, *ez diokek soporta aima desesperaturik* horrek subjektua falta du. Subjektua “itxasuak” dugu. Xahoren B eredu argi ikusten dugu: *Itxasuak ez diro sofri arima desesperatia*; eta hemen, duda handirik gabe, *sofri(tü)* eta *soporta(tü)* adiera bera dute.

Adizkiei gagozkiola, *diokek* delakoa **dirokek* batetik heldu da. Xahoren A eredu *diro* ikusten dugu garbiki, **iron* aditzeko forma jokatu. Adizki jokatu hau lehanago ere ikusi dugu, seigarren ahapaldian *nindiokeie* adizkian; hamazazpigarren ahapaldian, *diokedanez* transkribatu dugunean. Delako *diokedanez* hori **diokedanez* batetik dator, dudarik gabe.

ONDORIO BEZALA

Orain arte ezagutzen dugun “El marinero raptor” baladagaiko eredurik luzeena eskaini dugu lan honetan. Baladagai honetako hogeitahapaldiko eredu hain aberatsik ez dugu ezagutzen. Gure asmo nagusia testua finkatzea izan da. Testua finkatzeko eskuidatziaren ahalik eta irakurketarik onena egitearekin batera, Xahoren bi ereduak.

Enkontruak

Minez itxi ebazan Solek umeak bere amagaz. Argazkietan ikusi beharko eban seme-alaben irribarrera. Hareen azala ikutzeko aukerarik ez eban izango, ezta egunean-egunean sortzen jakezan minak eta pozak entzun eta bihotz emoteko be. Umeen geroa argitzeko joan behar ebala esan eutsan amari, baita bere buruari be. Horri eutsi behar eutsan. Bai edo bai sinistarazo.

Hamaika lanbidetan ibilitakoa zan, baina danak be, eskasak. Europan bai, Europan dirua egoan, hori esaten eben, horixe ikusten zan telebisinoan, haxe erakusten eben turistek. Halatan, bizimodu beroa atzean itxi eban, hobe beharrez.

Jaietan heldu zan Bilbora, bezeroak ugariagoak ei dira. Herriko gizon batek frankotan berba egin eutsan etorteko, dirua erraz irabaziko ebala, hankak zabaldu baino ez eban egin behar; besterik ez, zabaldu, beste batek teink eta sartzeko.

Bost bat urte lehenago herriko gizon haregaz ibili zan, eta gizonak ohekoak bikain gogoratzen ebazala esaten eutsan, adorea emon guran.

Bero errea egiten eban lehenengo egun haretan. Sukarrak tabernea hartuta eukan. Sartu-urtenak egiten ebilzan andrak tabernatik. Ez egoan erarik ez barruan ez kanpoan egoteko. Etorri ziran lehen bezeroak, eta hareetariko bategaz egin eban egin beharrekoa, pentsau eban baino errazago. Horretan neskek lagundu eutsien, gizon zakarrak beragandik aldendu ebezan-eta. Izara artera eroan ebana oso gozoa ez, baina adeitsua izan zan.

Lagun barrien berba adoretso gozoek lo hartzen lagundu eutsien gau haretan, eta hurrengoetan.

Egunak, asteak, hilebeteak, eta gizonak, igaro ziran, eta negua etorri. Beste bost andragaz lo egiten eban logela berean, eta beste hamarregaz bizi. Ameriketakoak danak, Bolizko Kostako neska bi izan ezik.

Domeka goizetan guajiroa etorten zan. Ezaguna zan nesken artean, itxura berezia eukalako eta ohiko bezeroak langoa ez zalako. Bota antzeko hareek mendirako zirala esan eutsien. Eta Antoneri be galdetu eutsan lehenengo aldiz beragaz egon zanean. Berba urriko gizona zan, kanpoan neurritsu eta apaingarri gitxikoa; ohean, barriz, gatxa zan jakitea zer eskatuko eban. Iretargiaren arabera zan, antza, haren gogo. Egunen baten zakila jan, hurrengoan, uzkia, ohiko narrutaldiak, neskea lotu gura ebala, hurrengoan bera lotzeko, inoiz mendiko sokak be ekarri ebazan.

Beti ez zan oheratzen Solegaz, Pagasarrira sarri joaten bazan be, beste mendi batzuetara joatea be gustuko eban. Neskakaz, antzean. Ganera, ez eban gura ohitu. Ohitureari jagokonez, etxeoagaz nahikoa. Gustura, ohitura bakarra zalako.

Antonon andreak ez eban mendia gustuko, eta artean Antonek ez eban lortu bere seme-alabak play-stationetik urrundu eta beragaz mendira osterea egitea. Bakarrik joaten zan. Bueltan Korte kaltetik igaroten zan, eta gogoaren arabera sartzan, ez beti. Aspaldion dana dala, amaren domekako mezea lakoa egiten jakon Korte kaleko osteratxua.

Baltsamo antzekoa, astelehenari aurre egiteko kemena emoten eutsan, eta andreagaz, eta narrutan, gozoago jokutzen eban. Andreak be igarten eutsan. Sarri esaten eutsan bai mendira joateko, on egiten eutsala-eta.

Pagasarritik bueltan goiz baten, Korte kalean ikusteko moduko titiak eta ikutzeko moduko popea ikusi ebazan ezin hobeto batuta, begitarte ederragaz. Aurretik be ikusiko ebazan halako neskak, baina ordura arte ez zan jaubetu. Lotsatu be egin zan, baina handik hilebetera, domekaro-domekaro neska karibetar ha ikustearen ikusteaz, ezin izan eutsan ezetz esan bere buruari, ezta bere gorputzari be. Rosalia izan eban izena, baina aspalditik ez eban ikusten. Antza alde egin eban. Ez eban inoiz, halanda be, itandu.

Dana horren erraza izan be ez zan. Neska bati narrutan egiteko ordaintzeak ezinegon sortzen eutsan. Inork bere inguruan (familiar edo lagunak) jakin ezkerro, ezingo eutsen barrero arpegira begiratu. Ez egoan ondo andra bateri holan ordaintzea. Baina haren berba eztsuek belarrietan kili-kili egiten eutsien. Hain gustura sentiduten zan, hain libre. Bere txoko gordeetako gogo askatzen eban. Andra eta neska hareek ez eben inoiz epaitzen.

Amerikako hegoaldeko eta erdialdeko neskak gustetan jakozan. Haren berbaera gozoa gaztelaniaz egitean, haren barreak eskerrik asko, aupa, gabon-eta erakusten saiatzen zanean. Bere baitatik, bere bizimodutik ateraten eben.

Solek bien bitartean dirua bialtzen eban hilero-hilero. Astean-astean, huts egin barik, telefonoz edo



Internetez amagaz eta seme-alabakaz berba egiten eban, eta lantzean behin, lagunakaz. Horrek eta inguruko neskek laguntzen eutsien bizimodu samurragoa izaten, hats eta eperdi zantarreko gizonak ahazten, zatarrak burutik aldentzen. Gatxa baino gatxagoa izaten zan askotan, baina ez eukan besterik, dirua zan.

Neskakaz Bilbon be ibilten zan, Korte kaletik urteteaz batera ia bere ogibidea ahazten jakon, bezeroren bategaz tupust egin ezean. Ondo pasetan eben. Kostaldeko herrietara be inoiz joaten ziran, baina, gehienetan, andraketariagaz izan behar izaten zan. Ondo, baina neskakaz bakarrik, hobeto. Euskal Herrian jaio izan ezkeru, guztiz bestelako bizimodua izango ebala pentsetan eban. Askoz be errazagoa izango zala begitantzen jakon. Ezin ameskerietan ibili, ostera. Etxean eguzkipean itxi ebazanakaz, bai, hareekaz ames franko egiten eban:

hona ekarriko ebazan? Hara joango zan, dirua batu eta taberna bat-edo zabaldu? Bide asko egozan aukeran.

Udagoieneko egun batez, hotz egiten hasi zan, eta lehengo biderrez neguko jersea ipini eban mendira joateko. Bueltakeo bidean, uniforme baltzeko sei gizon ikusi ebazan, Sole egoten zan tabernearen ondoan. Hurreratu eta makurtuta ikusi eban Sole, atzean eskuak lotuta. Solek, mendiko botak behean, eta goian Antonen begirada igeskorra, bildurtia, ikusi eban. Eta haren hankak Soleren taupadak baino arinago alde egiten entzun ebazan.

Arnasa sakon hartu eta bere zoritxarra madarikatu eban, gehiago bialduko ez eban diruaz pentsau eban. Zutunik ipini ebenean, uniformedun baten arpegia lehenago be Jessyrenaren ondoan ikusi ebala gogoratu eban.

Euskara, baserri-hizkuntza?

Jose Antonio Arana lagunari,
hil zitzaigun egun berean (11.04.27)

Aspaldiko kontua dugu, baina lelo bera aurpegi-ratzen digute, lantzean behin¹: euskara benetan da baserri-, landa- edo nekazaritza-hizkuntza? Zer adierazi nahi da adjektibo horrekin? Euskara baserriarren hizkuntza dela soilik edota gehienik? Baserri zein basoko gauzez komentatzeko soilik egokia? Ez dutela euskaldunek, euskaraz, inoiz ere, adierazi ezer jator interesgarririk? Bada ez bata, ez bestea, ez hurrengoa...ere, behin eta berriz horretan jarraitzen duten arren.

Asko jota, onar genezake (esker onez, gainera), neguko urte gorrietan, baserria izan dela euskararen atzeguardiako aterpea, baina izatez, euskara ez da, inoiz ere, “izkuntza larreko” hutsa izan: Detxepare edo Oihenart baserri-idazleak? Latinetik euskarara hainbat esalmolde maisuki ekarri zituen Joanes Leizarraga? Salamancan hezitako Pedro Agerre Axularkoa eta Sara esparruko apaiz eskolatuak²? Teologian doktorea zen Joanes Etxeberri? Medikuntzan doktorea zen Sarako Etxeberri? Pierre Topet Etxaun bera? Atzerago jo dezakegu, euskal literaturaren testurik zaharrenetaraino ere, eta ondorio bertsuak topatuko ditugu: “Beotibarko kanta”, “Bereterretxe kantorea”, Alos dorreko edota Lasturko eresiak... euskara landu ederrean idatzia izan ziren, autore klasikoen araberrako gaiak, metaforak, eta errimak erabiliz³. Eta zer esan agertu berri zaizkigun Lazarragaren testuei buruz? Eta, ez luzatzearren, azken ia ehun urteetan idatzitako

euskal testurik gehienak, baserri-, landa- nekazaritza-hizkuntzakoak? Orixe, Grezia zein Erromako klasikoak euskararako gidarizat aukeratu zituzten Ibinagabeitia, Zaitegi, Krutwig, Villasante, Mitxelena-renak? Mirande zein Arestirenak? Lizardi eta Lauaxetarenak? Atxaragarenak? Sarrionandiarenak? Saizarbitoriarenak? Mikel edota Amaia Lasarenak? Lete edota JosAnton Artzerenak?... baserri-, landa-, nekazaritza-testuak? Eta horiengan guztiongan ezer interesgarririk ez?

Esanaren esanez, euskararen baserriartasuna topiko laidogarri bihurtu zaigu. Horretaz (eta hartaz⁴), baina gehienetan euskararen gaurko kulturarako egokitasunaren kontra aritu zen Migel de Unamunori zorrotz erantzun zion Koldo Mitxelena, 1960an: “Más recientemente se ha recaído en los mismos defectos (Astarloaren euskararen aldeko gehiegikeriaz ari da), sólo que en sentido contrario. Así un vasco ilustre, Unamuno, aparte de sostener que el vascuence no puede ser vehículo de una cultura elevada, creía por lo visto que esa incapacidad era congénita y tenía la peregrina idea de que el vascuence es un idioma ‘más difícil’ que otros, es decir, más difícil para quien lo adquiere como primera lengua. En realidad, lo que sucedió es que Unamuno, al intentar escribir en vascuence en su juventud, tropezó con dificultades debidas en primer lugar a su falta de formación en la lengua, tan común entre los vascos cultos, y dio un alcance

general y hasta un valor metafísico a esta experiencia personal”⁵. Bada “berrogeita hamar eta piko urte igarota ura bere bidean”, iritzi oker horrek indarrean dirau. Omen.


Lelo berari lotu zion bere luma zorrotza Pio Barojak ere, aldeko (balakari) ez zituenen kontra irainak asmatzeko buru arina (arinegia ote?) izaten zuen idazle donostiar erdaldunak: “El vascuence no ha sido ni es una lengua literaria o filosófica... nadie creo que tratará de traducir al vascuence la *Lógica*, de Hegel”. Bada, 2005ean, Xabier Insaustik eta Ibon Uribarrik itzuli eta argitaratu zuten G.W.F. Hegel-en *Gogoaren fenomenologia* (Phänomenologie des geistes), Pentsamenduaren Klasikoak euskal bildumaren barruan, non, ordurako, argitaratuak baitziren ehundik gora mundu zabaleko filosofia liburu (Akinoko Tomas, N. Chomsky, R. Barthes, H. Bergson, S. Freud, M. Heidegger, I. Kant, K. Marx, K. Popper, J. M. Keynes...)⁶.

Harri berean egin zuen estropezu, duela gutxi, besteak beste, Espainiako presidente ohi Adolfo Suarezek, zeinek, 1976an: “¿Se hará el bachillerato en vasco o en catalán?” galderari honelaxe erantzun zion: “Su pregunta –perdóneme– es idiota. Encuéntreme en primer lugar profesores que puedan enseñar física nuclear en vascuence”. Handik gutxira, J. R. Etxebarria irakasleak honelako liburu hauek argitaratu zituen euskaraz: *Fisika generala. I. Mekanika* (1978). *Ekuazio jaraunskorrek. I: Erradiazio elektromagnetikoa; II: Osin-muga fraktalak* (1987), *Teoria fisikoen oinarriak* (1994)⁷. Jarrai genezake, baina berdin dio: *entzun eta gor, ikusi eta itsu*.

Argi dago lexiko eskasia defizit zaiola hizkuntza bati eta erronka horri aurre egin behar diotela munduko hizkuntza guztiek, are eta ekinago euskara moduko hizkuntza gutxitu batek. Hala eta guztiz ere, lexikoarena errazen konpontzen den defizita dugu. Urte gutxitan, euskaldunok euskara gaurko literaturara, irratora, eungkarietara, dibulgazio eta

zientzia aldizkarietara, komikietara, zinera, erlijio eta mistika arlora, administrazio hizkuntzara... eramateko gauza izan gara⁸. Are eta errazago ere, non-bait, euskara, mendeetan zehar, munduko hizkuntzarik indartsuenetarikoe (pedanteenek ere?)⁹ latinak, frantsesak, gaztelaniak) inguratuta bizitzera ohitua baita. Euskarak *bere mamiaz* hitz berriak sortzeko ahalmena erakutsi du (nola, gero!) eta, mendeetan barrena, inguruko hizkuntzetatik *lexikoa bereganatzeko trebezia aparta* ere bai, hitz arrotzok euskal senaren arabera oratu eta egosiz gehienetan, munduko hizkuntza guztiek egiten eta egin behar duten bezala. Eta horretan dirau jo eta ke... eta trebe. Hitzunen defizita konponduko ahal dugu, lexiko defizita bezain erraz!

2009. urtean, 2.342 liburu argitaratu ziren Euskal Herrian (211 digitalak). Horietatik 21 filosofia-ri zegozkion, 48 erlijio-teologiari, 948 gizarte zientzietara, 34 zientzia hutsei, hots: zientzia zehatzei eta naturalei, 93 zientzia aplikatuei, 196 edertiari, 447 filologia-literaturari, 85 geografiari, biografia-



ri, historiari... 2009/2010. urteen arteko epea aztertuz gero, giza/gizarte zientziako liburuak %73,8 gehitu egin dira, Zientzia-Teknikako liburuak %86,4, Hezkuntza-Irakaskuntzako %46,7... Bestalde, 2001-2010 urteen bitartean Euskal Herrian 188 doktore tesi euskaraz egin ziren.

Ez naiz sartzen gutxi-asko diren eztabaidatzen (gutxi, askok nahi genukeenerako...), baina argi dago euskara nekazaritza-hizkuntza dela esatea oker galanta dela (gezurra men¹⁰), are eta, Gabriel Arestik esaten zuen bezalaxe, ergelkeria ere bai: “Unamunok esan ohi zuen euskerak daramala gaiztasuna, bere morfologian edo barrengo eguinean. Baina hau filosofo haundi batek esan bazuen ere, munduko astakeriarik handiena da. Hizkuntzak, berez, eztira gaitzak, eztira zailak”. Ildo bertsean mugitu zen Koldo Mitxelena ere: “Como principio básico, yo sentaría una afirmación tajante: todas las lenguas, en principio, son equivalentes; no las hay, por naturaleza, ni mejores, ni peores, ni más altas ni más bajas”, eta, lekuko gehiagorik ez ekartzearen, George Steiner ere bai: “No hay lenguas ‘pequeñas’. No existe una sintaxis ‘primitiva’. Cada lengua, lo sabemos a ciencia cierta, engendra y articula una visión del mundo, un relato del destino de la humanidad, una estructura de formulaciones del futuro para la cual no existe facsímil en otra”¹¹.


Baina ez dugu horren urrutira joan behar. Nahikoa zaigu onartzea, 200 urtez gora direla, Don Juan de Sandiak esan zuen hura: “Euskereak eztau iñoren bearririk edozein gauza esateko”¹²; bestetara esanda: euskarak ez duela zailtasun *berezirik* literatura (Joyce, Proust, Frisch, Saramago, Golding, Yourcenar, Queneau, Narayan, Somerset Maugham, Mohamed Xukri, Tabucchi, Nothomb,...), zientzia edota filosofia mailan edozein gauza adierazteko, korapilatsuena ere bai, tresnak baititu nahiko eta sobera, ez soilik edozein gauza adierazteko, baita, behar denean, hitz berriak sorrarazteko ere, eta, garbi gera dadila, okerrik izate-

koan, “eskaldunek berèk dute(la) falta eta ez euskarak”¹³, edo, zehazki esateko, euskara ez dela baserri-, landa- edota nekazaritza-hizkuntza, baizik eta, izatekotan, euskal hiztunak.

Euskaldunen falta?

Nor ez dago faltan bere hizkuntzarekin? Baina hori ez da egungo gaiaren kontua. Euskal Herriko ok, euskaldunok zehazkiago, oro har, baserri-, landa- edota nekazaritza-arlokoak gara? Ez dut uste: ez gaurko euskaldunak, ezta *omen* XIX. mendearen hasierakoak ere, 1802an, Juan Antonio Moglek *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan (1802)* idatzirik liburu paradigmaticoak, azalez begiratuta, kontra-koa sinestera baginderamatzake ere. Zeren Moglek euskararen eredutzat Peru Abarka proposatzen duelarik ere (erdi serio, erdi broma), kontuan hartu behar baitugu a) Peru bezain euskalduna dela Maisu Juan, modernoagoa (erakargarriago?) agian¹⁴, b) baserriko gauzez aritzeaz gain, Mogelen liburuak elizgizon landu biren arteko autua ere ekartzen digula, zertan eta euskarak pentsamendu gaiaritzez daukan gaitasunaz, hain zuzen, eta c) euskarari begira benetako eredu J. A. Mogel bera dela (mogeldarrak, hobe)¹⁵, humanista izan zena¹⁶, W. Humbolt-en eta J. Vargas Ponce-ren lagun eta aholkularia¹⁷, latina oso ondo ikasia zeukana, bere bitartez: Zizeronek, Salustiok, Tazitok, Tito Liviok eta Kurtziok, lehenengoz euskaraz egin baitzuten berba, frantsesean ere abila omen zen: *Pascal-en Gogamenak* itzuli baitzituen euskarara...

Gaur egunean, bestalde, euskara nekazaritza-hizkuntza dela errepikatzea egiaren kontra aritzea da. Eusko Jaurlaritzaren azken estatistiken arabera, 2006an, Euskadiko euskaldunen %61,4 hiri-zonan bizi ziren (475.849 guztira), %38,6 landa-zonan



(299.045 gutzira)... eta joerak hiri-zonaren aldera jotzen duela argi dago. Ez dugu, beraz, arrazoirik gaur egungo euskara landa-hizkuntza dela esateko, ez hiztunei begira, ezta euskal hizkuntzak lantzen dituen gai edo mamari begira ere.

Ez nuke esango euskaldunok behar genukeen bezain azkarrak izan garenik euskal hizkuntza arloan, baina, horrela eta guztiz ere, ez genuke erru osoa Euskal Herrikoen lepora bota behar: euskal hizkuntzak Madril eta Parisko agintariengan guztiz arerio gogorrak izan ditu historian zehar, Euskal Herrikoen aha-lerin guztiak (zirela trinko-trinkoak, zirela ahul-ahulak) itozteko arma guztiak erabili baitituzte¹⁸.

Azken hamarkadetan, batik bat, euskaldunok euskarari arnasa eman eta modernitatera altxatzeko zirrikitu asko erabili dituzte: 2009. urtean, EHU

euskaraz ikasteko lehen matrikula egin zutenak ikasleen %45 izan ziren. 2009-2010 ikasturtean, EHUk derrigorrezko kredituen %70 euskaraz eskaini zituen eta plangintzaren arabera 2010-11 ikasturtean ehuneko hori %90era iritsikoa zen eta %100era 2012-13 ikasturtean.

Zergatik nabarmendu euskararen gaur eguneko kulturarako trakestasuna¹⁹? Ez naiz sartuko inoren intentzioekin; baina baliteke, nire ustez funts nahikorik gabeko baieztapen horrekin, hizkuntza gutxitu bati kalte egitea mingarrien suertatzen zaion zaurian: autoestimuan, alegia, posmodernitate honetan, euskarari ahulen geratzen ari zaion hegalean, hain zuzen. Euskararen eta euskaltzaletasunaren arteko loturaz, honelaxe mintzo zitzaigun Ibon Sarasola, 2000. urtean Bilbo eta Donostiako mahai inguru batean: “Orduko euskaldun berri guztiak, edo gehien-gehienak –nabarmetzen digu Ibon Sarasolak– euskaltzaleak ziren, euskaltzale petoak. Aldiz, gaurko euskaldun berri asko –ez denak noski, baina bai asko nire ustez– ez dira euskaltzaleak, euskaldunak lanorduetan dira eta lanorduetatik aparte erderaz bizi dira; eta euskaldungoak ezer gutxi irabazi du horrelako euskaldunekin”²⁰.

Euskal letra kulturaren ekarpenak

Egia da euskara ez dela inoiz izan kultura jator kementsu baten transmititzaile? Galdera horri erantzun baino lehenago xehetasun bat nabarmendu behar dugu: ea euskaldunen kulturak ez duen ezer jator kementsurik sortu inoiz, edo, sortuz gero, euskaraz transmititu beharrean, erdaraz egin duen. Interesgarria izanik ere, ez dut gai horretaz ezer esango; arrazoi batengatik: gai hori testuinguru zabalago batean, hots: hizkuntza gutxituen testuinguruan edota, zehazkiago, hiztun elebidunen testuinguruan planteatu beharra dagoelako: zein hizkuntzatan argitaratu zientzia gaiak gizarte elebidun batean?

Euskal Herrikoek kultura mailan gai baliotsuak sortu dituzte, historian zehar. Ez dut eztabaidatuko asko ala gutxi izan diren, baina kontuan hartzeko dugu: a) kultura arloan, kalitatea interesgarriagoa izaten dela kantitatea baino, eta b) kopuruari begira, euskaldunok beti gutxi izan garela. Hala eta guztiz ere, euskaldunok asmatu edota bultzatutako gauza batzuk ezin daitezke aipatzeke utzi:

–Lehenik eta behin, *euskara* bera, munduko hizkuntzetan hizkuntza jator eta kementsua dena. Esan dezala, euskara aztertu eta ikasi duten munduko jakitun zerrendak: W. Humbolt, L. L. Bonaparte, W. J. Van Eys, W. Webster, V. Stempt., J. Saroihandy, G. Hérelle, R. Menendez Pidal, H. Schuchardt, C.C. Uhlenbeck, Julio Cejador, G. Barhr, Karl Bouda, R. Laffon, Antonio Tovar, N. M. Holmer, H. Gavel, P. Naert, H. Berger, H. Vogt, N. Tauter, Y. V. Zystar... “Nondik datorkie euskararekiko zientzia interesa?, galdetzen du Mitxelenak, eta erantzun: “De que la lengua vasca es un vecino arraigado desde fecha muy anterior (a sus vecinas), en esta parte de Europa. Porque el occidente y sur de esta parte de Europa ha conocido, en su historia lingüística, dos hechos decisivos. Primero, en un proceso largo y mal conocido, la indoeuropeización prácticamente total, y luego, más cerca de nosotros, la romanización de su parte meridional, con la difusión del latín que acompañó a la expansión romana. Y de ambas inundaciones lo único que ha sobrenadado ha sido la lengua vasca, islote solitario que, junto al testimonio fragmentario y mal comprendido de algunos grupos de inscripciones, nos permite hacernos una idea de lo que pudo ser el paisaje lingüístico de estas regiones europeas con anterioridad no sólo a la romanización, sino incluso a la indoeuropeización. Para cuantos se interesan por el contacto de lenguas, permite comprobar en detalle cómo una lengua pequeña, sometida durante dos milenios por lo menos a la presión incesante de lenguas vecinas, ha podido mantenerse fiel a su tipo

antiguo, a pesar de las muchas y profundas modificaciones sufridas”²¹.

Bigarrenik, gero eta euskaraz idatzitako literaturan gehiagok irabazten dituzte sariak; baita itzuli ere, gero eta hizkuntza gehiagotara gainera. Horrek erakusten digu euskaldunak ez diren beste hiztunek ere, euskal testuetan, zerbait jator kementsu aurkitzen dutela.

Hirugarrenik, ez dira gutxi eta gehiagora doa, bai Espainian, bai mundu osoan zehar, euskara eta euskal kultura ikasi eta sakontzeko Unibertsitateen kopurua (New York, Reno, Japongo Wasedan...): “Euskara nazioartean irakasten da... eta martxan daude hitzarmenak duela zenbait urtetik hamahiru herrialdetako 25 unibertsitateetan ere, Mexikoko Universidad Iberoamericanan, AEBetako Boise State Universityn eta Italiako Università de Roman (UPTER), besteak beste”²².

Laugarrenik, Euskal mitologia, euskararekin gertatzen den bezala, oso mestizatua dago gaur egunean, baina indoeuroparrak ez diren mito ezaguri sakon interesgarriak gorde dizkigun bakarretakoa dugu²³.

–Bertsolaritza. Hitzetik hortzerako ahozko literatura badakigu munduan zehar zabaldurik izan zena, baina leku gutxitan gorde eta landu egin dute gaurdaino euskaldunok bezain ondo. Mundu zabaletik datozkigun jakitunek eta modalitate hori praktikatzan dutenek aho batez gorensten dute arlo horretako euskal esperientzia eta euskal jardun horietatik ikasi egiten dute. Arro samarra izan gabe, horrelakoetan, hoberik non? Antzera esan genezake antzina leku askotan ospatzen ziren *Pastoralez*, gaur egunean Zuberoko euskaran gordetzen den herri antzerkiaren lekuko interesagarria.

–Ez dut uste bazterrean utzi behar ditugunik euskaratik banaezinak zaizkigun euskal musika eta abeslariak: Mikel Laboa edota Xabier Leteren musika eta kantu testuak baserri-hizkuntza edota landa-kulturakoak? Ezer interesgarririk ez, ez eus-

kal musika tresnetan, ezta, askok eta askok miresgari goratzen eta errepikatzen dituzten abesti askotan ere?²⁴

Euskal kulturaren beste ekarpen batzuk

Euskal Herrikook baditugu beste kultur ekarpen azpimarragarri batzuk ere: zientziaren *alde praktikotarako gaitasuna*, esaterako²⁵: I+G, heziketa (lanbide-heziketa, batik bat), nekazaritza, industria eta merkatalgoaren arteko oreka, garrantzi handikoa zaiguna, euskal lurraldeko ekonomia egituratzeko orduan, geure inguruko herri askok gugandik ikasi nahi dutena, gaur eguneko krisi ekonomikoan agerian geratu denez. Bestalde, munduan zehar, euskaldunen artean auzolana, instituzio bezala eza gutzen dugun jarduna, antzinako ohitura omen zen gure artean ere, apurka galtzen ari bada ere, euskal leku ez gutxitan bizirik dirauena. Euskaldunok, haatik, gaurkotzen jakin izan dugu ohitura zahar hura, *kooperatiba* erakundeetan, mundu zabalera esportatu dugun enpresa eredu²⁶... eta hori ere, kultura da. Ildo beretik doa Euskal Herrikook geure lege zaharrak mantentzeko erakutsi dugun *irमतasuna* ere, zeinetaz Estatu osoko herriak (katalanak alboan utzita, nonbait) baliatu baitira beraien Autonomia estatutuak errebindikatzeko (eta kopiatzeko) orduan, eta horretan jarraitzen dute Euskal Herrikoen lorratzean (Kontzertu Ekonomikoa, eta abar). Aldi berean euskal foruak ditugu kultura arloan eragin nabaria duen ikur imitagarri eta aurrerakoa: “Euskal Herria beti izan da berezia, beti ezberdin. Abiadura bat gehiago izan dugu, hasteko, foruak izan ditugunetik. Abiadura horrek mundu modernoago bati begira jarri gintuen, bai XVI. mendean euskalduna Madrilera joaten zenean, bai Bilbo, Bermeo, Hondarribia, Pasaia eta beste portuetatik itsasontziak Atlantikotik barrena Stockholmeraino, Brujas eta Ganteraino irteten zirenean. Pekoz peko hitz egiten eta negoziatzen zuen eus-

kaldunak batarekin eta bestearekin. Beti ibili gara aurretik, nahiz eta zailago dugun nabarmentzea, euli asko dabiltza-eta inguruan”²⁷.

Aurpegira diezagukete, arrazoiz, Euskal Herrikook, historian zehar, ez ohi diogula, aipatu berri ditudan arlo horietan, euskarari behar zitzaion axola erakutsi, baina, aurpegiratze horretan: a) errua ez zaie euskarari edota euskal kulturari bota behar, Euskal Herrikooi baizik, eta b) erru osoa kanpotar ez gutxirekin ere banandu beharko genuke²⁸.

Seguru asko, bai industria aplikazioak, bai kooperatiba proiektuak, bai foruak babestu eta gaurkotzerakoan, Euskal Herrikook euskarari begirune handiagoa erakutsi beharko genion, eta ez eginaren zama geureganatu behar dugu (dagozkigun ontzeko asmoz, noski). Halaz ere, erruaz batera, kontuak hartzekoa dugu beste alde bat ere: Euskal Herriko *elebidunak* izanik, zein hizkuntzatan transmititu gure kultura-ekarpenak munduan zehar: euskaraz? erdaraz? Bidea egin dezagun, baina, erdara aukeratuz gero, ez jo, mesedez, geure (euskararen, euskaldunen) kontra, besteen mesederako egindako aukera!

Bukaera

Euskara eta euskal kultura, oro har, Euskal Herrikoen ardura dugu eta argi dago horretan denok zorrotzagoak izan beharko genukeela, kritikak eta aurrerako proposamenak egiterakoan. Ekintza zail erakargarri horretan, baldintza bi ditugu: ezinbesteko edo objektiboa eta nahiko edo subjektiboa. Baldintza objektiboa euskara eta euskal kulturaren balioa onartu eta aitortzean datza eta baldintza subjektiboa Euskal Herrikoen euskal kulturaren aldeko gogo eta ekintza, egoera ez errazean²⁹.

Baldintza objektiboari, hots, euskal kulturaren balioari uko egiten diotenek euskal kulturaren arazoa oinarritik moztu egiten dute. Zertarako ekin baliorik ez duen kultura edota hizkuntza bati? Bai-

na euskal kulturaren arazoa ez datza, nagusiki bederen, baldintza objektiboetan, baldintza subjektiboetan baizik³⁰: euskara, batik bat, eta euskal kultura, oro har, landu, sakondu eta zabaltzeko ahaleginetan eta horretan borondate oneko kritika guztiak, gogorrenak ere, onuragarriak zaizkigu. Eskertuko genuke, haatik, baldintza objektiboak eta

baldintza subjektiboak ez nahastatzea... euskara eta euskal kultura bitxiak baititugu, buztinezko ontzietan eraman beharrekoak³¹... Lan delikatu horretan, bitxi hori miretsi eta maitatu behar dugu: euskal kulturaren autoestimua, alegia, eta, horrekin batera, ekin eta zabaltzeko Euskal Herriko guztion borondate irmoa ere bai.

OHARRAK

¹ JUARISTI, J. *ABC*, 11-02.13: “Pequeña lengua rústica que, históricamente no ha sido vehículo de una cultura letrada vigorosa y original”.

² MITXELENA, L. *Historia de la literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1960, 79. or.: “Escriben en una lengua de aspecto mucho más moderno, más aburguesada, que la de Dechepare y sobre todo que la de Leizarraga: se trata de la lengua cotidiana, elevada sin esfuerzo a lengua literaria. Algunos de los autores poseen una magnífica formación humanística y todos han recibido al menos una iniciación en las bellas artes: no es de extrañar, pues, que no sientan preocupaciones puristas ni en el léxico ni en la sintaxis, ni huyan con horror de lo que de sus lecturas pudiera deslizarse en sus escritos vascos”.

³ ORPUSTAN, J.B. Erdi Aroko Berantako euskal kantuak: “une littérature aristocratique” izenburuean kokatzen ditu. *Ikus Précis d’Histoire littéraire basque*, Izpegi, Baigorri, 1996, 15. or.

⁴ UNAMUNO, M. Bilboko Lore Jokuak, 91.08.26: “El vascuence nos viene a estrecho y como su material y su tejido no se prestan a ensancharse, rompámosle... Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia...”; *ABC*, “Don Miguel de Unamuno frente al estatuto”, 32.06.02: “Ni con el vascuence ni con el catalán se pueden pensar cosas de elevado sentido. En esas lenguas regionales es posible, por ejemplo, hablar cómo se alimenta una vaca o cómo se siembra maíz”.

⁵ MITXELENA, K. *Historia de la literatura vasca*, o. c. 32. or.

⁶ *Ikus www.eizie.org › Argitalpenak › Senez › Senez 32 (2007)*. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen elkar-
tea, (2008ko otsaila): “Orain, urteak pasatu ondoren esaten

ahal da emaitzak onak izan direla oro har. Eta onak izan dira arrazoi askogatik. Batetik, 100 baino obra gehiago publikatu dira euskaraz. Ahalegin handia da hori, meritu handikoa. Hemen daude pentsalari klasiko zaharrak eta berriak, hemen daude bilduak gure gizarteko pentsamoldean pisu berezia izan duten pentsalari gehienak”.

⁷ *Paris Match*, 1976.

⁸ SAGARNA, A. “La modernización del euskera”, *Deia*, 11.04.22, 24. or.: “Para apoyar esta afirmación cuento con los datos de una encuesta realizada por el profesor Popkema de la Universidad de Gröningen, cuyos resultados presentó su autor en el congreso Euralex 2010, celebrado en la ciudad frisía de Leeuwarden. El objetivo del trabajo era conocer el estado de la Lexicografía en las lenguas europeas minoritarias o sin estado. Pues bien, en Europa hay unas 60 lenguas de este tipo, con un total de 55 millones de hablantes. La encuesta alcanzó a recopilar datos de 20 de esas lenguas. Atendiendo al número de diccionarios de distintos tipos (en papel, online, de especialidad, escolares, etc.) producidos en cada lengua, el euskera figuraba en la primera posición del ranking, y en cuanto al uso de las nuevas tecnologías en Lexicografía (diccionarios online, corpus electrónicos, software para Lexicografía) en segundo lugar”.

⁹ SARASOLA, I. *Euskararen ajeak*, o. a. 201. or. “Euskal hitzez”, *Euskera*, XXXIV (2. aldia) 1989, 2-n argiaratua. *Euskararen jarraipena III*, EJ, Kultura Saila, 2001, 45. or.: “Badi-rudi ez garela konturatzen mendeen gauzkatzen hizkuntzak, munduko bi hizkuntza pedanteenak direla une honetan”. “Euskal Herrian, euskaraz eta mundu zabalean indartsuenetarikoak eta hedatuenetarikoak diren beste hizkuntza bitan hitz egiten da, gaztelaniaz eta frantsesez, hain zuzen ere. Baina euskarak,

gaztelaniak eta frantsesak duten balioa eta indarra oso desberdinak dira”. VILLASANTE, L. Euskaltzaindira sarrera-hitzaldia: “Egun euskara bi hizkuntza handiri ahurpegi eman beharrean edireiten da, heiekin aitzinez-aitzin gudukatu beharrean, eta baldin bi erdara hoik nagosituren ezpazaizkio, behar-beharreko dugu euskarari harmen emaita, indargailuz hornitzea, ahal den neurrian heiekin berdindadin, heien abantailak beregana ditzan, bertzeek baino kondizino txarragoko zelako azpiko athera ez dadin”.

¹⁰ LARRAMENDI, M. *Diccionario Trilingue del Castellano, Bascuence y Latín*, San Sebastián, 1745 XXVIII: “La 1^o objeción era decirnos, que el Bascuence es una Lengua bárbara, incapaz de cultura, irreducible al método y Arte, y que era lengua áspera y desabrida. Esta objeción que antes se hacía, pues ahora nadie se atreve hacerla. Los que antes la hacían con el apoyo de un Autor grave, así a manera de ciegos, que quieren distinguir los colores, están burlados ya como merecen y públicamente desmentidos después que se ha hecho demostración de lo contrario”.

¹¹ ARESTI, G. *Gabriel Arestiren literatur lanak*, o. a. 54. or. MITXELENA, K. “Lengua y cultura”, *Lengua e Historia*, Parainfo, Madrid, 1985, 151. or.; STEINER, G. *Errata. Examen de una vida*, Siruela, 1998, 131. or.

¹² MOGEL, J.A. *Apendice a Peru Abarka*.

¹³ AXULAR, P. *Gero*, Jakin, Arantzazu, 1976, 17. or.

¹⁴ MITXELENA, K. *Egan*, 1956 (3-4), 102. or.: “Harritze-koena hauxe dugu. Maite dugu Peru, bai, baina ez barberua baztertzeko adina. Kaletarra da gure antzera; gu bezalako euskaldun kazkarra, gu bezalako sasi jakintsu erdi ikasia; gure gisa burrundari gehiago begiratzen diona gauzen muin gordeari baino. Horrexegatik agian, aho-zabalka gagozkio, ixpilu harrigarri begira. Iguzkiak badu denentzat argi, onentzat eta gaiztoentzat, eta Mogelen irriparre gozoa ere, Cervantesena bezala, guziongana hedatzen da, Peru jatorragana beste Maisu Joanenagana”.

¹⁵ Maisu Juan (medikua) edota Juan de Sandia (abade) J. A. Mogelen *heteronimoak* direla uste dut. Ponte-izenak lekuko: “Autuen” autorea: Juan Antonio de Mogel.; Autuen maisua: Maisu Juan “barberua dena... gaur *medikoen* pare direnak” (Juan Antonio Mogelen aita eta aitona: medikuak ziren; Azken Autuko elizgizonak: Fray Pedro (Pedro Antonio de Añibarro, OFM) eta Juan de Sandia (Juan Antonio de Mogel).

¹⁶ VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 213. or.: “La idea de escribir Peru Abarca le vino a don Juan Antonio de los diálogos latinos de Luis Vives”.

¹⁷ WIKIPEDIA, José de Vargas Ponce (Cádiz, 10.06.1760-Madrid, 6.02.1821), marino de guerra, político, poeta satírico y erudito ilustrado español.

¹⁸ Ikus Ikus TORREALDAI, J. M. *El libro Negro del Euskerera*, Ttartalo, Donostia, 1998. Francoren diktadurapeko agindu ugari gogorak eta Euskal Herriko Gotzainen Zirkularrak: “Vigilancia contra el euskara” (Cumplimiento de la circular del gobernador militar, abril de 1937); “Hablad castellano” (Bando del Gobernador militar” (15 de abril de 1937); “Denunciar al que hable euskera” (Circular del General Primer Jefe, San Sebastián, 29 de mayo de 1937); “Predicación sagrada en castellano” (Normas para la predicación sagrada del Administrador Apostólico de Vitoria, 1 de marzo de 1938)..

¹⁹ JUARISTI, J. “Amateurismo”, *ABC*, 27.02.11. “eusquera, que en Alcobendas no sirve ni para preguntar la hora” (eta greziera klasikoa zein modernoa, errusiera, japoniera?).

²⁰ SARASOLA, I. *Gabriel Aresti 1933-1975. Gabriel Arestiren mundua-Erakusketa eta jardunaldiak*, Bilbo/Donostia, 2000, 132. or.

²¹ MITXELENA, K. *La lengua vasca*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977, 21. or.

²² *Argia*, 2270 zk. 11.03.26, 26. or. EFE, 08.02.10. “Por su parte, el Gobierno Vasco mantiene convenios concertados con seis ‘euskaletxeas’ (centros regionales) y cuatro universidades españolas, para los que este año destinará 100.000 euros. Los centros vascos de Madrid, Barcelona, Valencia, Murcia, Valladolid y Palma de Mallorca agrupan entre todos ellos a más de 400 alumnos, que junto a los de la universidades de Barcelona, la Autónoma de Barcelona, la Complutense y la de Valencia se aproximan a los 800 en todo el país. El departamento de Política Lingüística del Gobierno Vasco recuerda que también se puede estudiar euskera en las escuelas oficiales de idiomas de Madrid y Barcelona y en la UNED y las universidades de Salamanca y Navarra, donde esta lengua es oficial en parte del territorio”. *Euskonews*, 10.12.3-10: Hoy en día el Gobierno Vasco tiene firmados acuerdos con 25 universidades donde 665 alumnos estudian euskara: Barcelona, Madrid, Roma, Helsinki, Brno, Moscú, Boise, Reno, México, Uruguay, Argentina, Chile...

²³ BARANDIARAN, J. M. “Contribución al estudio de la mitología vasca”, in *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972, 357. or.: “El núcleo de la antigua población pirenaica que mejor ha resistido al empuje arrollador de pueblos y culturas llegados a sus fronteras después del Paleolítico, conservando así los rasgos de su vieja fisonomía, es justamente el que ocupa la parte de la cor-

dillera donde los pasos de una vertiente a la otra, más numerosos y fáciles, permiten una mayor interacción entre los habitantes de ambos lados. Es el pueblo vasco”. HARTSUAGA, J. I. *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia, 1987. 31. or.: “Euskal eta indoeuropar mitologiei darizkien mezu ideologikoak ia erabat kontrajarriak daude”.

²⁴ Oteiza eta Txillidaren aitortzak ez aipatzearen, behin eta berriz esan digutenak euskara dela munduan zehar miretsiriko bere eskulturen hizkuntza. Ikus UGALDE, M. *Hablando con Chillida escultor vasco*, Txertoa, 1975, 152. or.: “Fue la curiosa manera (poner nombres vascos a muchas esculturas y a toda la obra gráfica) como surgió a esta intención de poner a hablar en *euskera* a mis esculturas, y en 1951 cuando la lengua vasca estaba muy lejos de alcanzar todavía el grado de tolerancia con la que se la viene aceptando hoy”. ANASAGASTI, P. “Nuestras entrevistas: Jorge de Oteiza, escultor”, *Arantzazu*, XLIX, 1970, 43. or.: “Recientemente comprobé que esta estructura lingüística del friso correspondía a la estructura íntima del euskara. En *El Diario Vasco*, de San Sebastián, 3 de julio, 69, aparecieron unas declaraciones mías en las que precisaba que el friso de los Apóstoles habla en dialecto suletino”. GANDIAGA, B. *Hiru gizon bakarka* (Arantzazuko frontisaz): “Kalbario mendiko / dolorezko inguruan / ireki zan hitza, / eta hitz haren hotsa, / ta haren oihartzuna. / Euskaraz bakarrik / aditu ditekene hitz / gurutziltzatua”.

²⁵ MITXELENA, L. “De los vascos y su carácter”, *Triunfo*, 1972 (09.12), p. 67.: “Acaso no peque de suspicacia quien piense que ha habido (¿o hay?) cierta propensión a considerar a Vasconia como un país atrasado, hasta reaccionario, poblado por gentes de mente simplicísima, a pesar de un adelanto técnico que, sea dicho de pasada, viene de bastantes siglos atrás. Me resisto a creerlo, aunque sólo sea porque he visto a más de un vasco valerse de su ingenua sencillez para conseguir tratos tan ventajosos para él como costosos para los demás. Los financieros navarros tuvieron notable intervención en la economía de la España ilustrada. La Compañía Guipuzcoana de Caracas es, por lo que se me alcanza, la primera manifestación de colonialismo moderno, racionalmente implacable, en la América española. La Sociedad Bascongada de Amigos del País no nació, por ejemplo, en Cataluña: si se busca lo bastante se dará sin duda con la razón suficiente de que apareciera precisamente entre nosotros. También se produjo ahí la Machinada, que es la otra cara de la Bascongada. Y ésta no fue, como a menudo se sugiere por omisión, una sociedad económica más, sino el modelo, apenas igualado, de todas las económicas españolas. Si no consiguió más fue en buena parte porque a la

Ilustración española, cuya pusilanimidad crónica debería ser proverbial, le bastó la primera señal de alarma para alinearse con sus supuestos enemigos, en quienes decubría de pronto una real –demasiado real– comunidad de intereses, ideas y propósitos”. ASTIGARRAGA, J. “Foralismo e Ilustración en el siglo XVIII”, in *Derechos históricos y constitucionalismo útil*, Fundación BBV, Bilbao, 2000, 23. or.: “El movimiento ilustrado vasco no fue inducido desde el poder central. Sus primeras manifestaciones institucionales fueron previas a los aires de reforma propios del reinado de Carlos III. La manera en que la foralidad afectó al movimiento ilustrado vasco se aprecia en las primeras etapas del mismo. Su institucionalización definitiva fue debida a un núcleo de políticos forales en el ejercicio de sus responsabilidades públicas y, por tanto, ese movimiento debe considerarse, en esencia, la expresión del reformismo ilustrado vinculado a las instituciones forales”.

²⁶ ORMAETXEA, J. M. (MCC-ren sortzailatariko bat), *Gara*, 05.03.18: “Hay que tener en cuenta que Euskal Herria es un país que, por lo que fuera, puede ejercer un sistema de trabajo en comunidad que en otros países no se podría ni plantear”. MITXELENA, K. in UGALDE, M. *Hablando con los vascos*, Ariel, Barcelona, 1974, 92. or.: “En casa (Euskal Herria), hemos producido por lo menos dos cosas interesantes: una es la Bascongada del siglo XVIII que fue el modelo de las sociedades económicas de la España ilustrada, creadas a su imitación. La otra más importante puesto que permitió el desarrollo de la primera, es el modelo de vida colectiva, muy diverso según las regiones, que se fue desarrollando al amparo de las instituciones propias”. BAROJA, J.C. *Los Vascos*, ISTMO, Madrid, 1971, 217-218. or.: “El concepto de nobleza en relación con el trabajo es radicalmente distinto en el país vasco al de otras partes de España desde una época antigua, puesto que dentro de una población de hidalgos en conjunto había una gran diversidad de posiciones económicas y sociales. La lengua vasca, que no ha incorporado al parecer muchas de las expresiones medievales que reflejan jerarquías políticas y de otra índole, cuales las de infanzón, rico-hombre, etc. (que, por lo menos en la parte de Navarra, debían de usarse mucho), tiene palabras muy usuales para indicar: 1. Relaciones especiales entre amos, criados, inquilinos y dependientes. 2. Relaciones de linaje, más amplias que las familiares analizadas. 3. Relaciones de vecindad, etc.”.

²⁷ ZELAYA, A. “Pertsonaia” in *Argia*, 2273. zk. 11.04.17, 14. or.

²⁸ Ikus TORREALDAI, J.M. *El libro Negro del Euskera*, o. c. 1766. 15-29 or.: “No se permiten publicaciones en euskera”;

1768, “El euskera, prohibido en la escuela (artículo de la real Cédula firmada por Carlos III, el 23 de junio de 1768”); 1772, “El euskera, prohibido en los libros de contabilidad” (Real cédula de 24 de diciembre de 1772; 1794 “Ni actas ni actos en euskera” (Convención Nacional, Ley de 2 de Termidor del año II, 20 de julio de 1794); “El teatro en euskera, prohibido” (Madrid, 11 de marzo de 1801)...

²⁹ MITXELENA, L. *Historia de la literatura vasca*, o. c. 12-15. or.: Mitxelenak aipatzen ditu: Euskal Herrian aspaldiko *elebitasuna*, *diglosia*, inguruko hizkuntzekiko *berezitasuna*, hiztunen gizarte *eragin eskasa*, *erromanizazioaren* aldeko Elizaren *usadioa*, XX.mendearen bigarren zatira arte, *Unibertsitatearen* falta, agintarien *indiferentzia*... “No obstante lo dicho

sería injusto en sumo grado acusar a los vascos de los siglos XVI a XIX, incluso a sus clases más elevadas, de menospreciar la lengua... todos los vascos han sentido un orgullo desmedido por su idioma”.

³⁰ JUARISTI, J. o. c. “(el) futuro (euskararena), por más que en otro tiempo yo mismo la utilizase y cultivase, no es de mi incumbencia, sino de sus actuales hablantes y escribientes”.

³¹ ARESTI, G. *Hitzaldiak*, Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Susa, 1986, 91. or.: “Herri hau irudicen baizait askotan beira fin bat dela, kristal mehe bat, bibolin baten bibrazioak apurtu lukeena”. Bitoriano Gandiagak metafora bera erabili zuen Arantzazun izan genuen elkarrizketa batean.

FRANCISCO JAVIER ARRIETA. *Itsaso aldetik*. Arranondo Kultura Elkartea, 2007.

Kresal usaina

Javier Arrieta 2007ko azaroan hasi zuen *Arranondo* aldizkarian Ondarroako gizon-emakumeen kontakizunak argitaratzen. Orain, kontakizun horreek guztiak batu eta 29 kapituluko lan hau kaleratu dau, 36 herritarren ekarpenak bilduta. Kirmen Uribek egineko sarreran, Herman Melville aitatzten deusku, itsasoagaz lotutako testigantza garrantzitsu baten aurrean gagozalako oraingoan be.

Kontakizunak aldizkarian argitaratzen hasi orduko, idazleak ondo definituta eukan bere asmoa: Ondarroari estu-estutik lotutako sektore horren inguruko guztia jasotzea, ez bakarrik gizonezko arrantzaleen kontuak, baita emakumeek sektore horri lotuta historian egin dabezanak be. Lehenengo ideia zehaztu eban, eta gero idazle ezagunen idatzietan bilatu eban, Zubikarairenean eta Erkiagarenean besteak beste. Gero etorri zuen familiaz familia lekukotzak batzeko zeregina.

Arranondon 2007tik 2010era argitaratutako testuak kronologikoki ordenatuta dagoz, eta tartean denboraz kanpo geratzen diran istorioak tartekatzen dira, kontakizuna arintzeko. Liburua *Atako bandan* hasi eta *Herriko bandan* amaitzen da, eta liburuaren azalean esaten dan moduan, “*bien arteko ibilbidea Ondarroako itsas gizon eta emakumeentzako omenaldia be bada*”.

Hartara, horren guztiorren emaitza moduan, arrantzaleen kontuak, arrain-saltzaileenak, saregileenak, astillerukoak, izotza egitekoak, herrira etorritako immigraanteenak, piratenak eta beste

asko irakurri leitekez orriotan. Liburuan istorio alaiak topau geinkez, baina tristeak be badagoz, bizitza bera be holangoa dalako. Ez da ahaztu behar testigantzak jaso eta liburua kaleratu arte hiru informante hil zirala.

Ondarroan Ondarroari buruz idatzitako liburua. Baina lokalismorik bakoia, bizkaieraz atondua. Tartean, egileak dedikatoria moduan egineko olerkiak, guztia-aren osogarri. Eta, amaitzeko, hiztegia eta arrainen, krustazeoen eta zefalopodoen izenak, lanaren aberasgarri.

Idazlea harrিতa dago liburuak izan dauan oihartzuna ikusita. Liburua komunikabide askotan agertu da eta ale asko saldu dira. Esan doguzan guztiak esan eta gero, harridura bera da harritzeko modukoa.

Arantza Etxebarria Iturrate



